

# ANAITASUNA

283. zenb.

1974.eko urriaren 15ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5  
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

## SINODUA-1974



**Nola eman gaurko munduari betiko Ebangelioa?**

Irailaren\* 27an bildu du Erroman Eliza Katolikoak, urriaren azkenerarte iraungo duen bere Sinodua. Mendebaldeko\* erromatar Elizaren barnean, Sinodua gobernagailu berria edo berritua da, eta konstituzio berrikuntzarako asmatua. Vatikanoko II.aren ondoren hasi da lan egiten. Zazpi urtetako bizitza bakarrik du, beraz.

Oraingo hau, Sinoduaren laugarren bilkura\* da. Lehen bilera 1967.ean egin zen; eta orduko gaiak, fedearren krisia, eliz zuzenbidearen\* berriztatzea, apezgaitegiak eta liturgiaren erreforma izan ziren. 1969.eko bilera biltzarre berezia izan zen, eta gaiak: apezpikuen elkarkidetasuna eta hauek Erromarekin ukan ditzaketen harremanak. 1971.eko bilkuran, gizarte lanari zuzenagoan begiratu zitzaion, «apezaren ministergoa eta justizia munduan» gaia aztertuz. Aurtengo bilkurarako hautatu den gaia, «gaurko munduaren ebangeliozintza» da.

### **Aurtengo Sinoduan parte hartzen dutenak**

Erregelamenduaren arabera,\* mundu osoko apezpikuek osatzen dute Sinodua. Ekialdeko\* eliza ortodoxo-katolikoek 15 ordezkari dituzte. Gainerakoak latin elizaren ordezkariak dira —143 orotara\*—, munduko bost alderdietatik etorriak: Europarrak 40, Hego Amerikarrak 36, Afrikarrak 33, Asiarrak 22, Ipar Amerikarrak 7, eta Australiarrak 5. Aita Sainduak berak izendatu dituen 22 batzarkideak, eta Kuriak eta Erligioso Ordenen ordezkari bezala hautatu direnak kontutan harturik, 209 lagun dira, guztitara, Sinoduan parte hartzen dutenak. Ikusten da, beraz, Erromatarren egitekoa eta eragina, handia izanik ere, oso mugatua gerta litekeela Sinodu barnean.





Aurrera, irakurle eta ikasle!

Hemen gaituzue berriz ere EUSKALDUNTZEN metodoarekin, guztioi aukera emanaz, geure hizkuntza nola ikas, zabal eta irakats jakin dezazuen.

Liburu hauetan arras ongi azaltzen dira hitzak eta esaldiak. Ikasleak, gehienik, gauza ezagunak aurkituko ditu, baina poliki poliki joko du zailago diren gauzetara. Honetaz gainera, hiru liburuotan, irudiak, eskemak eta esaera zaharrak agertzen dira.

Hiztegiaren klasifikatze bat ere egin dugu. Hitz batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direlarik, kontutan hartu dugu haien **noiztasun** eta **maiztasuna**.

Ba dituzte liburuok elkar hizketa eta istorioak ere. Hizkuntzak eguneroko tresna bat izan behar duenez gero, haren zerbitzua agerian jartzeko jarri ditugu istorio eta elkar hizketok.

Geure hizkuntza ikasteko, hemen duzue prest, hiru mailatan, EUSKALDUNTZEN metodoa. Eska ezazue helbide honetara:

**EUSKALDUNTZEN**

**Euskaltzaindia (Academia de la Lengua Vasca)**  
**Ribera, 6**  
**Bilbao-5**

**ANAITASUNA**  
**BIZKAIA**

**HAMABOSTEROKOA**

**JABEA:**

San Frantziskoren Hirugarren Ordenako Biltzarre Nagusia.  
 Batzarburu: Miguel Zapata (Goya, 25. Madrid-1)

**ZUZENDARIA:**

Joseba Intxausti, O.F.M.

**HELBIDEA:**

Bulegoa: Pelota, 4-1.º Bilbao-5  
 Posta kaxa: 495

**INPRIMATZAILE:**

Imprenta AMADO - Mazarredo, 35. Bilbao-10  
 D. L.: BI-1.753 - 1967

**Sinodu honen egitekoak**

Egia esan, orain arteko Sinoduek ez dute eman, askok nahiko zuketzen fruiturik. Beharbada, oso teorikoak izanik, ekintzabide jakinik eragin ez dutelako. Alde antzetatik beren buruak kristau fededuntzat jotzen dituzten zenbaitentzat, aurtengo Sinodua eraginkorragoa izanen da.

Dena dela, egitekoaren funtsean dagoen galdera bati erantzun beharko dio aurtengo batzarreak: nola eman gaurko munduari betiko Ebangelioa? Bilaketa honen lehen oinharri bezala, galde bilduma\* bat zabaldu zuen Sinoduaren Sekretaritzak. Mundu osotik jasotako erantzun eta albisteekin dokumentu sozio-pastoral bat moldatu da.

Sinoduaren lehenbiziko bi asteetan, estudio horren azterketa bat egin du biltzarreak. Brasilgo Lorscheider apezpikuak azalpen orokor bat egin ondoren, bost txostenetan\* erakutsi da Elizaren kontinente bakoitzeko egoera: Afrikakoa, Tanzaniako Sangok; Hego Amerikakoa, Argentinako Pironiok; Ipar Amerika eta Ozeanikoa, Estatu Batuetako Bernardin apezpikuak; Asiakoa, Pakistango Cordeirok; Europakoa, Marseillako Etxegarai.

Esan bezala, Sinoduaren erabakiek eliz konstituzioa moldatuko dutenez, biziki garrantzizkoa izan da hainbeste eta hain partaide desberdinak elkartzea.

Lehen parteko azterketa sozio-pastoralaren ondotik, hurrengo bi asteetan ekintza berriari teologi oinharriak emango zaizkio, hau da, gaurko munduan lan egiteko premiazkoak diren zimentarri teorikoak bilatuko.

Bistan da, Vatikona II.az geroztik, Elizak gorabehera oso desberdinak ukan dituela: atzerakada nabarmenak zenbaitetan, loraldi berriak bestetan. Etorkizunaz hitz egin eta ausnartu beharra dago, beraz.

**Zer itxaron litekeen eliz biltzarre honetatik**

Toki askotan ez du Sinoduak baikortasun\* handirik aurkitu, aurretik egin direnetatik ondorio eragile eta bizkorrik sortu ez delako, nonbait. Hauxe da egia. Katoliko ekintzaileengan ere ba da pesimismorik franko. Hala ere, zerbait jatorrik espero ote genezake oraingo bilkura honetatik?

Katolikoak zerbait itxaron\* beharrean daude une honetan, eta beharbada itxaropen hobeagorik ukateko arrazoinak ere ez dira falta. Hasteko, gogora dezagun, Sinoduak egingo dituen gogoetek,\* bestetan baino oinharri errealistagoa dutela. Teoria hutsean funtsatu\* partez,\* azterketa soziologiko batetik ekiten\* zaio lanari. Alde honetatik, Kontzilio berritzaile haren jite\* berriari leial zaio Sinodua.

Bestalde, mundu osoari Erromako hiritik epaia eman orde, nonnahiko kristatu bizipen eta etsimenduen esperientzia dutenak mintzatuko dira oraingoan. Hauxe da, hain zuzen, Elizako gobernagailuen artean Sinoduak ekar dezakeen egiteko apartekoa: Elizaren, osoaren eta irekiaren, egiazko oihartzun\* eragailea izatea. Izan ere, herrien kulturek ez dizkiote alferrik ematen hain ñabardura\* desberdinak: tokian tokioa izan beharra du, beraz, eliz lagunarteak. Azken mende t'erdian (eta lehenagotik ere) Eliza Katolikoan nagusi izan diren zenbait konstituzio molde, birpentsatzekoak dira, eta horretarakoxe ere bidelagun egokia izan daiteke Sinodua.

Joanes GOIA

# "IBERIA EXPRESS"

## Galiziako akademiko batekin elkar hizketan

Estatuko beste Herriak ezagutzen iragan ditugu azken lau urteotako oporraldiak. Lehen hiru urteetan katalan hiru herrialdeak ezagutu genituen, eta aurretik Galizia. Interesgarria izan zaigu azken osterak\* hau. ANAITASUNAREN irakurleen kulturak\* zertxobait aberasteko, ustea dugu, tartean, Portugalera, Galiziaren anaia den Herrira egin genuen sar-irtentxoari ere txoko bat utziz.

Hasteko, Santiago de Compostelan, Galiziako hiriburuaren, elkar hizketa bat egin genuen Ramón Piñeiro jaunarekin.

Ramón Piñeiro jauna, ozta\* ozta bazen ere, aspalditxotik ezagutzen genuen. Bera izan zen, «Real Academia Gallega»ren izenean, gure hiriburu zaharrera, Iruinera, Euskaltzaindiaren urre eztaietako biltzarrera etorri zena. Orduan, elkar agurtu baino askoz gehiago ez genuen egin.

Piñeiro jaunak —«Galaxia» editorialaren eta «Grial» aldizkariaren asmatzaile eta sortzaile— lan interesgarriak eginak ditu, adibidez, «Siñificado metafísico da Saudade», «A Saudade en Rosalía», «Pra unha filosofía da Saudade», «A lingoaxe i as língoas», eta abar. Azken lan hau irakurria dugu, eta oso interesgarria da guretzat ere.

Hara zer konfusio bide ikusten duen Piñerok galego hizkuntzarentzat bere lan horretan: «prexucio sociolóxico, prexucio lingüístico, prexucio ideolóxico». Zatiño batzuk hartuko ditugu. Uste dut guretzat ere baliozkoak direla.

«O feito de que durante varios séculos o galego teña sido arredado de toda vixencia oficial e reducido á condición de língoa oral popular, tiña que producir unha profunda discriminación sociolóxico-idiomática. Si a língoa do Poder, a língoa da cultura i a língoa do prestixio social era a língoa oficial, mentres que o galego era só a língoa coloquial do pobo traballador...»

«O prexucio lingüístico pódese en xeneral reducir a istes tres: o poliformismo dialectal, a anarquía ortográfica i o desprestixio social...»

«Chamámoslle ideolóxico, porque vai asociado a un tipo de ideoloxía que en nome do progreso refuga a pluralidade idiomática...»

Eta, besterik gabe, goazen elkar hizketara.

### —Nola sortu zen galego hizkuntzarakiko kezka?

—Aintzina aintzinatik, galegoa baserritarren, arrantzaleen eta hirietako langile xeheen hizkuntza bezala bizi zen. Kulturgintza gaztelaniaz egiten zen eta egiten da oraino. Gainera, gaztelania, kultur hizkuntza izateaz aparte, agintarien hizkuntza zen. Administratzaileak, Elitzak, handikiek eta hiri burgesiak gaztelania erabiltzen zuten, jakinaren gainean eta harrokeriaz. Galegoz, gizarteko behe mailakoak mintzatzen ziren, menperatuak, «ezjakinak». Baina XIX. mendearen bigarren zatian gure olerkariak kultur iraultza bat egin zuten, herriko hizkuntza arrunta poesi hizkuntza landua bihurtuz. Harez gero, galegoa, hizkuntza landu bezala, poesi sorotik\* kultur ekintzetako beste sail guztietara pasatu zen, geroago eta gehiago. Burruka hau, Galiziaren nortasunaren errebindikazio eta afirmaziozko burruka gertatu zen.

### —Galegoak zer egoera du gaur?

—Kultur errespetuaren burrukak\* irabazia duela esatea, ez dut uste gehiegikeria bat denik. Gaur galegoari ez zaio kultur balioa ukatzen. Galegoaren erabiltzea

errespetuz ikusten da, eta errespetu hau astiro astiro zaletasun bihurtzen da.

Galegoak gaur egun dituen beharretarik, bi aipatuko nituzke nik:

a) Barrura begira, bere aspaldiko itxuraren aldatu beharra. Mende askotan nekazarien kultur munduan iraun zuen, eta nekazaritza gaur kinka larrian dago. Orain hiri hizkuntza bezala ibili beharra du, teknika zibilizazioaren gaietara guztiz egokiturik.

b) Kanpora begira, irakaskintzaz jabetu beharra, batez ere aitzineskolako\* eta EGBko mailetan.

—Galegoa hiri handietan guti erabiltzen dela konturatu naiz, egiten ez duten askok mintzatzeko gai izan arren. Ez ote du joera horrek, belaunaldi\* pare batez, hizkuntza hilgo?

—Hala eta guztiz ere, barrutik begiraturik, galegoaren etorkizunaren itxaropena hirietan dago. Azken hamar urteotan galegoak atzera egin du baserrian. Hirietan, aldiz,\* irabazi egin du; jendeak inoiz baino gehiago irakurtzen eta haintzat hartzen baitu. Hirietan lotsa gutiagorekin hitz egiten da geroago eta gehiago; eta honek, geroari begira, balio izugarria du, batez ere jokatibide berri honetan parterik nagusia gazteriak duela kontutan hartzen badugu.

—Galizia eta Portugaleko kultur eta politika taldeen artean ba dago harremanik?

—Portuges intelektualekin ia\* beti izan dira kultur harremanak, eta sendotuz doaz. Politika harremanak, ordea, ezinezkoak gertatu dira alde bietatik, joan den urte mordoan.

### —Eta euskaldun eta katalanekin?

—Kultur harremanak, eta neurri batez politikazkoak, joan den mendearen azken aldean hasi ziren katalanekin. Alfredo Brañas irakaslearen, «erregionalismoaren» teorikaren dotrin eragipena oso nobarmena izan zen, batez ere Prat de la Riba-ren eta Cambó-ren jokabidean. Geroago, 1917 eta 1918.ean, Cambó-ren inguruko gizonak eta Cambó-k berak ere orduko galegismoarekin harreman ugariak sortu zituzten.

Euskaldunekiko harremanak geroago hasi ziren, 1920.ean uste dut; eta bai euskaldunekin eta bai katalanekin 1930. urte inguruan indarberritu ziren. Harreman onak izan ditugu beti herri biek; baina elkarren arteko lanak eten asko eta jarraipen guti izan du.

—Galiziar herriaren birpizkundean zertan jokatu du Galego Hizkuntzaren Akademiak?


—Gure Akademiaren kultur lana, 1906.ean sortu zenez geroztik, oso mugaturik egon da beti, diru faltagatik. Bere ahaleen arabera, positiboki lagundu du gure birpizkundera.

—Oviedo, León eta Zamorako probintzietan, zeintzuk dira, historiaz, ekonomiaz eta geografiaz galiziar bezala jotzen diren eskuldeak\*?

—Asturiasko mendebaldea,\* Nava hibairaino guti gorabehera, hizkuntzaz Galiziaren jarraipen bat da. Berdin León-go Bierzo eskualdea eta Zamorako Sanabria. Hizkuntzaz eta bizimoldez eskualde hauek eta beren mugako galiziar eskualdeek ez dute desberdintasunik.

J. L. LIZUNDIA

zaigu, jaku  
zaio, jako



## ipar aldea

### Ebangelioa euskaraz

Aspaldidanik hitzemaña ziguten, euskarazko Ebangelio berri bat inprimatua izanen zitzaigula. Gaur eskuratu dugu. **Jesus Kristoren Berri Ona** du izenburua. eta igandeetako irakurgaien bilduma\* bat da. Dakigunez, irakurgai hauk\* Euskal Liturgi Batzordeak zuzentzen, moldatzen eta idazten dizkigu. Euskal nortasunaren izenean gores-ten ditugu lan honen kudeatzaile\* eta asmatzaileak.

Bizkitartean,\* gure eritzi apalez, ez da lana itzalik gabea, bereziki Euskara Batuari doakionez. Gaur egun —ANAITASUNA aldizkari hau, euskal liburuak, diskoak, Euskal Unibertsitatea direla lekuko—\* Euskara Batuari buruz hortzez\* eta haginez lanean ari garenean, zergatik ez idatz Ebangelio hau Euskara Batuan? Gisa\* horretara lanean aritzeari, sozio-kultural baldintza baitezpadako\* baten baztertzea dela deritzagu. Zertarako, eliz gauzetan, Euskara Batuari buruz jarrera\* ezezkor\* eta faltsu hau har? Dakusagunez,\* idazlan horretan erabili\* euskará\* lapurtarra dela esan genezake. Baina, hala ere, duda-mudazko euskara. Hain zuzen, hona zer gisatako kontraformak aurki daitezkeen liburu horretan: adibidez, **uso** hitza bi gisatara (**uso** eta **urso**); batzuetan **Jerusalem** eta beste batzuetan **Jerusalem**, t batekin. Zertarako ez behinbetikotz **uso** hitza har, eta **Jerusalem** (eta antzeko hitzak) t-rik gabe idatz! Gainera, huts haundi bat nabari\* da: aditz baturik ez da erabili.

Agian,\* hemendik aitzina\* Euskal Elizak jarrera gutiz ezezkor hau aldatuko digu, jarrera baiezkor batetan sartuz. Ba dirudi, gomendio\* hau segituz, asko diru eta izerdi salba litekeela. Azkenekotz: «Jesus Kristoren Berri Ona» lan goresgarria, baina lan mugatua.

### Euskaldun laborariak azkenean mugitzen hasi dira

Europako laborariak beren haserrea erakutsi dute, beren traktore eta karroekin bideetara eta karriketara\* jaitziz eta autoen ibilpideak bizpahiru orenez\* trabatuz.

Ipar Euskal Herrikoak ere azkenean itzarri direla esan dezakegu, zeren eta Baionan baitziren berrehun bat traktore, Salbaterran beste berrehun bat, Donibane Garazin eta Ortzaizen zenbait hamarreko.

Donibane Garazin, konkretuki, irailaren 16an, merkatu egunez, goizeko 8etarik aitzina berrogei laborarik bide nagusiak hitxi zituzten. Traktoreak urrats\* urrats zihozzen, eta gaitzeko\* auto lerrokada gibeletik. Guztiak harriturik zeuden. Laster, manifestatzaileetara hurbildu ziren merkatura etorritako laborariak. Eritzi guztietako jendea multzokatu zen, eta eztabaida bizi biziak sortu. Adibidez, laborari batek zera zioen: «Zuzen da, laborariak bestek bezala ager ditzan bere grinak eta arazoak». Gaz-

te batek: «Damurik,\* ez ziguk inork esan, kurridarik\* izanen zenik; bestenez,\* geure traktoreekin etorriko giztuzkean gu ere».

Ez da goizegi, gure laborariak edo nekazariak ere lot dakizkion burrukabideari, ikusten baitugu nola eta zenbat haien bizkar zabalaz baliatzen diren Europako gobernuak.

### «Monoplast» lantegi berria Baionan

Lantegi berri bat gehiago ba dugu Baionan. «Monoplast» du izena. Sainte Croix deitu hauzoko industrial eremuan aurkitzen da.

Obra lanak, joan den urteko irailean hasi ziren. Eta langidariak uste baino gehiago irauñ zuten, zeren\* eta, lurpearen sendotzeko, orotara\* 530 zutoin edo pilare zementuzko sartu behar izan baitzituzten.

Lantegia, joan\* apirilean hasi zen lanean; eta irailaren 16an bisitatu du Herriko Kontseiluak, Grenet jaun alka- tea buru. Orain 125 langile, gizonki eta emazteki, ba ditu. Urte hau bururatu orduko, beste hogeit bat gehiago izanen ditu, heldu\* den urtearen bukaerarako berrehun, handik besterako hirurehun eta hurrengorako beste ehun bat gehiago: orotara, bostehun bat langiletara heltzeko nahikunde dute lantegi berriaren nagusi diren Cau- nègre bi anaiek.

Lantegi honek plastikozko ekaia\* baliatzen\* du. Pi- korka\* heldu zaio lehen ekaia; eta gero, lanteknika bere- zi batzuen bitartez, behar bezala landu eta moldeatu on- doren, eguneroko bizian baliatzen diren gauzak bihur- tzen ditu, hala nola plastikozko hosto, arin nahiz pisu,\* haurren haltzari,\* ikuztoki,\* janari ontzi eta farmaziako ontzi mota asko.

Baionako Herriko Etxea indar berezi bat egiten ari da, azken urte hauetan muntatu dituen industrial eremueta- ra\* lantegi berri eta garbien ekar erazteko. Noiznahi or- du liteke, beste hiri-herrietako Kontseiluak ere bide be- retik abia litezen.

Lanbide berriak nasaiki\* behar ditu gure eskualde- ak.\* Ahal bezainbatean lanbide garbiak eta teknika alde- tik aitzinatua.\* Baina ez da aski.\* Lantegi horrien gida- riak edo koadroak ere lekukoak behar ditugu, eta ez, orain arte gertatzen den bezala, gutiz\* gehienak atzerri- koak.

**ELAI & ALAI**  
**YURRE**

DANTZATOKI GOXOA Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra  
Astegunez: 7. tatik 10.ra.

**SOINU KOADROFONIKOA**

KAFETEGI **AMA & LUR** RESTAURANTA

## Herri ttipietako eskolak ezin irekirik atxikiz

Iparralde honetan, frantses Estatuaren pean diren beste anitz\* eskualdetan bezala, herri ttipiek ba dute non zer egin beren herriko eskolaren irekirik atxikitze-ko.\* Azken hamar bat urte honetan, bat baino gehiago hitxi da. Eta denbora berean, beste herri batzuetan, haurrak metatu egin dituzte, zenbait aldiz berrogei ta hamar baino gehiago emanek irakasle bakar baten gain.

Hala ere, gero eta gehiago ari dira, kasu horretan diren herri ttipiak itzartzen. Hauzako eskola, Zuberoan, herriko gurasoei esker egon da irekirik. Gisa berean, 1967.ean hitxia izan zèn Amorotzeko eskola, Donapaleu ondoan, herriko gurasoei eta Kontseiluari esker berriz irekia izan da aurten.

Herri ttipietarik eskola urruntzen denean, herriko bi-ziarentzat guztiz seinale txarra dela, esan gabe doa.

## Donibane Lohitzuneko arraintzariak kexu\*

Donibane Lohitzuneko arraintzariak kolera haunditan sartu zitzaizkigun, joan den agorrilean.\* Goiz batez, lehenik hirirako biderik gehienak arrainketako karroekin trabatu zituzten bizpahiru orenez,\* autobide berria barne. Ekintza horrek itsas hegiko\* bide nagusian sekulako auto lerroa muntatu duela, esan gabe doa. Arratsaldean, arraintzari multzo batek lau kamioikada atun gasoilez zikindu zituen, bata Hendaian eta beste hirurak Donibane Lohitzunen. Eta azken hauetarik bata Herriko Etxearen ate aitzinean\* eta Luis XIV.aren Plazan hustu zuten, ehunka udatiar behari\* zituztelarik. Atun horik\* kontserbategienak ziren.

Zerk asaldatu\* ditu gure arraintzariak? Zabaldu zituzten paperetan esplikatzeko zuten, itsasoan biltzen duten atuna ezin saldua dute, zeren\* eta Donibane Lohitzuneko atun erosleek mugaz bestaldetik ere ekartzen baitute atuna. Kontserbategiek ez zuten, beraz, hobetik\* arazo horretan, zeren eta lekuko arraintzariak ez baitiete aski atun ekartzen, eta ondorioz kanpotik bildu behar izaten baitute, mila bostehun bat langileri lana ematekotz.

Ekintzazko egun horretaz gerotik, biltzarre bat egin da Donibane Lohitzuneko arraintzarien, arrain erosleen eta kontserbarien artean. Bi erabaki berezi ere hartuak izan dira. Lehenik, mugaz bestaldetik heldu den atunaren kontrolatzeko, batzorde bat muntatua izan da. Talde honek aduanaren laguntza ukanen du, bere lanaren hurbile-rik betetzeko. Bigarrenik, arrain erosleen sindikatuak erabakia hartu du, ez duela urria artino mugaz bestaldetik atunik ekarriko. Hemengo atunarien abantailetan hartu\* erabaki edo deliberamendu honek, mugaz haraindiko atunariak kexa erazi dituela, berez doan gauza da.

Bestalde, prezioen berritzeaz ere ari izan dira ele\* eta ele. Eta azkenean elkar aditu dute.

Esan behar dugu, oraingo problema hau, guti edo aski konpondu bada ere, ez dela osoki ezeztatua,\* zeren eta, atunaren salprezioaz bestalde, atun arraintzaren moldea bera baita jokoan. Egungo egunean, molde berrienak baliatzen\* dituzte beste herriek. Donibane Lohitzunek ere oraingo muntaturik ba daduzka lau atunketari haundi. Baina ez da aski. Gelditzen diren gehienak ere bide berari beharko zaizkio jarraiki, ahal badute, zeren eta, bestenez,\* haien ofizioak gero eta irabazpide gutiago emanen baitu.

Eta, bururatzeko, esan dezagun oraino, atunarien problema hau, mugaz bestaldetik heldu den atunetik baino gehiago, Mediterraneo aldean kolpeka eta desberdinki saltzen den atunetik heldu dela.

Eta orain gertatzen dena, hauxe omen da: Mediterraneo-ko itsasportuetara heldu den atuna bospasei liberatan saltzen dela, Donibane Lohitzuneko zazpi ta erditan egiten delarik.

Ez da, beraz, ikusten dugunez, arazo ximplea. Eta, itxura guztien arabera,\* izanen da oraino beste kalapitarik.\*

Ametsak amets, noiz ikusiko dugu Euskal Herri osoko arraintzarien batasun azkar\* bat?



# bizkaia

## «Beti Lagunak» koralaren lehen diskoa

«Beti Lagunak» koral hirurogei kantarik osatzen duten taldea dugu, Lejoako Lamiakon 1917.eko urriaren 6an sortua.

Lehen urratsak\* adiskide talde txiki batek eman zituen, hauzotegiko musika zaletasuna gehitu nahirik, eta koral on bat sortzeko behar hainbat kantari ba zegoela ikusirik.

«Beti Lagunak» koralak epe labur batez lortu ditu bere asmoak, eta gero eta gorago doa. Gaur egun, Euskal Herrian bazkide gehien duen kantari taldea dugu. Bizkaiko Koralean I. Astean parte hartu du, eta urtean zehar zenbait kontzertu eman ditu, Antolin Zarraga maisuaren zuzendaritzapean.

Antolin Zarragak Lamiakoko parrokan eman zituen lehen urratsak musika alorrean, eta Aita Domingo Ugarteren gidaritzapean ikasi zuen musika sakratuari doakion guztia. Portugaleteko «Danok Bat» zortzikotean parte hartu zuen, eta gero bertako «Adiskideak» izeneko bigarren zortzikotearen zuzendari izatera heldu zen.

«Beti Lagunak» koralak atera berri duen disko labur hau Begoñako Basilikan kantaturiko zenbait kantuz osatua da: *Festara* (Mokorooa), *Ilun nabarra* (Mokorooa), *Edurra* (Jaroff), *Goizeko izarra* (Santesteban). Hauxe da, koral honek argitaratu duen lehen diskoa. Bizitza luzea opa diogu, eta beste disko asko emanen digula espero dugu, kantatzeko duen tankera\* bikaina eta kalitate jatorra zehazkiago eta luzeago frogatzea\* diezagun.

## IX. Euskal Liburu eta Disko Azoka Durangon

Aurtengo Euskal Liburu eta Disko Azoka hazilaren\* 1etik 3rarte izanen da. Standak hazilaren 1ean, 2aren arratsaldean eta 3an egonen dira zabalik. Egundorietan eta azokatik kanpo, euskal liburuaz zerikusia duten ekintzak eginen dira.

Azokako orduak hauk\* izanen dira: Goizean 10 eta erdie-  
tatik ordu 2ak arte, arratsaldean 5etatik 9ak arte. Lekua, beti

bezala, Uribarriko Andre Mari elizpean. Agertuko diren argitaldariak, elkarte eta erakundeak\* 20 bat dira.

Azoka barruan atsedean agerpen batzuk ere izanen dira, batez ere gure folklore eta ohiturenak.

Ihaz bezala, «Gerediaga» sari berezi bat emanen da. Aurten *euskal kazetaritza* hautatu da gaitzat. Evaristo Bustintza «Kirikiño» zenaren oroitmenez, edozein egunkari nahiz aldizkaritan argitaratu den lan bilduma\* hoberena sarituko da.

Horretaz gainera eta azken azoketan bezala, presentatzen diren liburu onenak ere sarizatuak izanen dira, haien literatur maila eta esannahia kontutan harturik.


## Kantaldiak, ikastaroak, jaiak

- Aurten ere Bilbo eta inguruetako haurrek beren Gabon Jaia izanen dute, «Santiago Apóstol» ikastetxeko teatroan. Oraino ez dugu zehetasun askorik; baina esan genezake, Mixki eta Kaxkamelon pailazoak izanen ditugula. Jaialdia abenduan izanen da, ia segur 22an, igande goizez.

- «Zubi Barri» izenarekin sortu berria da Deustuan euskal kultur elkarte bat, eta haren lehen ekintza euskarazko ikastaro bat antolatzea izan da. Horretarako giroa sortzeko, eskuz egin dituzte mural apain batzuk\* eta bar eta dentetan ezarri. Ondorioz, ehun bat ikasle eta zazpi irakaslerekin emanen diote hasera ikastaroari, *Euskalduntzen* metodoa erabiliz, Deustuko Lasalletarren ikastetxeko getetan.

- Sondikarrek euskal kantarien jaialdi bat eratu nahi dute urriaren 29rako. Hau idazten ari garen memento honetan ez dakigu, behar diren baimenak lortu ahal izanen dituztenik. Presentatzailea Zorion Egileor izanen omen da, eta kantariak Estitxu, Xeberri eta Gontzal Mendibil. Estitxuk, irailaren\* 18an, Frantziako telebistan kantatu du, berak dituen dohain bereziak agertuz. Hango etxe batek diskotaratu nahi izan dizkio kantatuak; baina ez zaio posible izan, horretarako eskubide bakarra —lau urtetan behintzat— «Columbia» etxeak baitu.

- *Euskal Hit Parade* antolatzen duen Bilboko Juan Manuel Ares jaunak bidali digun kontaketan, honela daude lehen bost postuak: 1. *Euskal Herri polita gora* (Lejoako Korala), 2. *Sarako Festak* (Joxe Mati eta Mikel), 3. *Zugana, Manuela* (Xeberri), 4. *Maitia nun zira* (Lejonako Korala), 5. *Atso atso* (Os-karbi).




# nafarroa

## Nafarroaren historiako aurkimendu berriak

Udialdia, jakina, aberatsa izaten da arkeologi lanetan, ikasle eta irakasleek libre izaten baitituzte hilabete horik,\* horrelako ikertzapenetan\* iharduteko. Nafarroako Meano herrian bost hilobi bisigotiko aurkitu dira, beste hainbat gurtzerekin. Muino\* batean aurkitu dira guztiok.

Santakara herrian ere aurrera eraman dira arkeologi lanok, eta hemen erromatar nabarimenak\* aurkitu dira, «Las Delanteras» deitu\* lurretan. Harloza idatzi bategatik, 50.000 pezeta ordaindu ditu Nafarroako Diputazioak.



Axularren jaiotetxea

## Euskaltzaindiaren Batzarre Ageria Axularren omenez

Irailaren 14ean, Nafarroako Foru Diputazioa eta Urdazubiko\* Udala\* lagun zituela, Euskaltzaindiak batzarre ageri eta ospetsu bat egin zuen, Urdazubiko monasterio zaharraren klaustruan, Axular euskal idazlearen ohoretan.

Batzarrearen aurretik, kontzelebraziozko meza eman zen herriko elizan; eta Castro, herriko alkate jaunak, agur hitz batzuk irakurri zituen, batzartuei ongi etorria emanez.

Aita Villasintek eman zion hasera batzarreari, Axularri euskal literatura landuan zernolako tokia zor zaion adieraziz.

Ondoren, Juan San Martin jaunak bere sarrera hitzaldia irakurri zuen, gai honetaz: «Euskal literatura landuaren sorrera giroa, Axularren garairarte». Jean Haritschellar jaunak erantzun zion, eta, beste gauza askoren artean, San Martin jaunaren lanak eta merezimenduak azpimarkatu zituen.

«Principe de Viana» erakundearen\* zuzendari den Vicente Galbete jaunak eta Jose Maria Satrustegi euskaltzainak **Fontes Liguæ Vasconum** aldizkariaren zenbaki bereziaren aurkezpena egin zuten, dena Axularri eskainia baita.

Autoen leihotetan ezartzeko

# ANAITASUNA

txartelak,

salgai, 10na pezetatan, gure bulegoan.

Pelota, 4. Bilbao-5.

Eta batzarreari bukaera emateko, Iturralde Diputatu jaunak hitz batzuk esan zituen, Nafarroako Diputazioaren izenean.

Ondoren, euskaltzain, agintari, eta omenaldira etorritako jende guztia Axularren jaiotexera joan ziren (etxe hau, beronen jabe den Justo Salaberri jaunak berriztatu baitu), eta bertan jarritako oroitarria agertu zen. Oroitarriak hauxe dio: **1974, Axular euskal idazle nagusiaren sortetxea, 1956-1644.** Ayuntamiento de Urdax - Diputación Foral de Navarra - Academia de la Lengua Vasca.

Oroitarria agertu eta, Arizkongo dantzariak, eta Matin eta Xalbador bertsolariak saio bana egin zuten.

Nafarroako Diputazioak eskainitako bazkariaren ondoan, Zugarramurdiko harzuloak ikusi ziren, eta haietan beretan ikusle guztiak edari batekin gonbidatu zituen Herriko Kontseiluak.



## Liburu berriak

### 1. ELOSEGUI, Jesús:

*Las minas de cobre de Aralar (1732-1804).*

Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.  
San Sebastián, 1974.

Editorial honek ohi duen gisara,\* liburu apain batean ematen da, euskal meagintzaz\* Jesus Elosegi jaunak egin duen lan hau. Hogei kapitulutan estudiantzen dira Aralarreko meatoikiak, eta haietan XVIII. mendean egindako lanen breri ematen da. Lan honen iturriak lehen eskukoak dira. Artxibuetan bilatu du gaia autoreak: Gipuzkoako artxibu nagusian, Oinatikoan, Iruineko eta inguruetakoa udaletxe\* eta parrokiakoa artxibue-

tan (Huitzin, Amezketan, Gaintzan, etab.). Alor berri bat urratzen duen liburu baten aurrean gaude, beraz.

Meatzok eraman zituèn elkargoaren\* bizitza, zuzendarien nortasuna, langileriarri buruzko berriak, teknika aldagetak, kapitaltzearen gorabeherak, elkargoaren berrikuntzak: hau guztiau agertzen zaigu idazlaneon. Bere ttipian, Euskal Herriko Industri Iraultzaren atalurreko\* bat da, Elosegik lan honetan agertzen duena. Beste zentzu batean, liburuaren parterik praktikoena, izen eta tokizenen aurkibide aberatsa da.

Holamoduzko lanetatik etorriko da, egunen batean, Euskal Ekonomiaren Historia amestua. Gure ikasle gazte askorentzat eredu\* egokia dela esango nuke, liburu hau.

### 2. LASA, Fr. José Ignacio:

*Jáuregui el Guerrillero (Un pastor guipuzcoano que llegó a Mariscal).*

Premio «Basauri».

Ed. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1973.

Hona, artxibu zuloetatik, hauts artetik, Aita Lasa Urbiako artzainen kapellauak atera digun artzain gerlaria. «Artzaiaren» bizitza hau, Gipuzkoako Tolosa eta Oinatin dituen artxibuetatik atera du, bereziki, autoreak. Paper sorta zaharretan dauden eskribuetatik jaio da guretzat euskal gerlari honen biografia.

Gaspar Jauregi Urretxuan jaio zen 1791.ean. Jauregi hau eskolatu gabea zen: ez zekien firmatzen ere. Ogibidez artzaina, 1810.ean gerrillari ekin\* zitzaion Napoleonen harmadaren\* kontra. Espoz Minarekin harreman hertsia\* ukan zituen Gasparrek. Gerratea aurrera zihoala, Jauregi gertatu zen Gipuzkoako Harmada Buruzagi. 1820-1823. urteetan, konstituziozaleekin, Gorostidi apez gerlariaren kontra gudukatu da. Ondoren herbesteratu beharra du Jauregik. 1830.ean mugako erasoaren\* porroketaren ostean,\* lehen karlistada dator: liberalen buruzagi izan zen Jauregi. 1841.eko urrian Foruen alde egindako matxinadan, oster,\* Espartero liberal progresistaren aurka agertu zen euskal Diputazioekin batera. Honegatik jasan\* behar izan zuen beste herbesteraldi baten ondoren (1841-1843), Gasteizen hil zen 1844.ean.

Aita Lasak, euskal historiarako, lehen eskuko langai gaitza\* bildu digu liburu honetan. Beharbada, oraindik ere landu beharrekoa; baina, garaiko kondaira moldatuz joateko, gai berri eta iraunkorrez betetako kutxa da idazlan hau.

#### Albistariak:

Juan Manuel ARES  
Xabier GERENO  
Joseba INTXAUSTI  
Mañex LANATUA  
Gexan LANTZIRI

## GALERIA DEL LIBRO

José Angel de Zaballa

Liburudenda  
Euskal liburuak



EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

dakizkion, dakiozan  
diete, deutsee  
diezagun, deiskun  
digu, deusku  
diogu, deusagu  
diote, deutsoe  
ditzan, daizan  
dizkigu, deuskuz  
dizkio, deutsoz  
genezake, geinke  
gintuzkean, ginatekeen  
litezen, leitezan  
zaio, jako  
zaizkio, jakoz  
zeuden, egozan  
ziguk (digu), deusku  
ziguten, euskuen  
zion, eutson  
zitzaigun, jakun  
zitzaizkigun, jakuzan

# Zer egin, Euskal Herria

## euskal herri bihur dadin?

Baten batek uste duke\* dagoeneko,\* Euskal Herriarentzat politikazko egitarau\* handi eta miresgarriren bat ematera natorkiola. Horixe berberori bururatu bide zitzaien frantsesei, Chaban-Delmas jaunaren alde propaganda egitera André Malraux telebistara atera zitzaientzan, eta honela hasi: «Zer egin genezake, Frantzia benetan, Frantzia bihur dadin?» Eta Malraux jaunak entzule eta ikusle asko asper erazi eta liburu saltzaile asko haserre erazi omen zituen. Niri, berriz, Malrauxen hitzaldiaren berri jakiteak, Euskal Kulturaren arazorik larrienetako bat ekarri dit gogora.

«Cuadernos para el Diálogo» aldizkariak ale berezi bat eskaini berri dio Euskal Kulturaren «birpizteari». Birpiztea ba dakigu zer den: zerbait, lehen izandakoa (agian\* bikainduagoa) bihurtzea. Euskal Herriarentzat, **euskaldun** eta **herri** bihurtzea izanen litzateke (euskaldunago eta herriago, noski). Hala ere, «Cuadernos para el Diálogo» aldizkariaren ale berezia idatzi duen Bustamante jaunak ezin ziezagukeen ezer esan euskal telebistari eta euskal zinemari buruz.

Frantsestasunaren galtzearen sustraia irakaskintzan somatu du Malraux jaunak. Eta hona hemen, hark aurkitu duen konponbidea: «Irakaskintza erabat\* aldatzeko bidea, liburuetan gabe,\* ia oso osorik telebistan aurkitzen da». Beraz, utikan\* liburuak eskoletatik eta haurren eskuetatik, eta Frantzia sustrai\* sustraitik aldatua izanen da. Batek baino gehiagok irribarrez hartuko du beharbada konponbide hau; eta Chaban-Delmasek horrexegatik ere horren nabarmenki galdu zuela esanen du beste norbait; hain gogotan hartu baitzuen lehendakariak bere adiskidearen ateraldia.

Hala ere, Malraux jaunari eman egin behar zaio ez dabilela inola ere hain oker, herri bat aldatzeko eta berriren benetako aurpegia erakusteko, eta politika osoa berriro izateko ere, irakaskintzaren garrantzia begien aurrean jartzen digunean. Eta, batez ere, berea du arrazoina Malraux jaunak, gaurko kulturgintzan eta herrigintzan telebistak duen eginkizuna eta indarra nabarmentzen digunean. Ni ez naiz pedagogoa, eta ez dakit zenbateraino behar diren gaur liburuak eta zenbateraino telebista, eskolako haurrak hezteko;\* baina ba dut hemen ere neure susmotxoia, Malraux jauna gaurko pedagogiaren bide zuzenetatik ote zebilen. Egi sail handi bat bota du Malrauxek euskaldunontzat. (Eta, bere laguna frantsesen lehendakari egiten arrakastarik\* izan ez duenez gero, berori hautatu beharko genuke agian\* geure lehendakari).

Nork ukatuko luke Euskal **Herriarentzat** irakaskintzak duen garrantzia? Eta **Euskal** Herriarentzat euskal irakaskintzak duen inportantzia? Eta, beraz, Euskal Herriak duen ikastolen, euskal lizeoen eta euskal Unibertsitateen premia? Izan ere, Euskal Herriak, izango den eta izan behar duen Euskal Herriari ezer utziko badio, irakaskintzaren bidez izango da batez ere. Eta nolako irakaskintza, halako Herria. Euskal Herri hau benetan Euskal Herri bihur dadin nahi baldin badugu, euskal irakaskintzaren premia dadukagu, eta, beraz, geure ikastolak, lizeoak eta Unibertsitateak (!) indartu beharra.

Gure ikastoletan liburuak urriagotzea ez da erraza izanen: kentzeko, eduki egin behar da; eta nabarmenega

da textutan eta bestelako liburutan ikastolek duten hutsunea. Betetzeko eginahal handiak egiten ari diren bitartean, ikastoletatik liburuak baztertu behar direla esatea, geure buruak ukatzea litzateke eta ikastolak irtenbidetik gabe uztea. Baina galdetu behar duguna zera da: ikastolako liburuak eta irakasleek horren neke handiz lortzen dutena, eguneroko telebistak eta asteroko zinemak ez ote duten suntsitzen.\* Galdera hau egina dago aspalditik, ordea, eta arazo larria guztion aurrean jarria. Hala ere, beldur naiz, ikastolak, liburuak eta irakurgaiak egiteko lan nekagarria egiten dihardugun bitartean, entzun-ikusgailuak ahantzita\* (edo ezinezkotzat jota) ote daduzkagun. Textuak eta irakurgaiak prestatzeko egitarauak antolatu baldin baditugu, entzun-ikusgailuak prestatzeko eta ikastola guztiei eskaintzeko bideak ere eratu beharra dago. Eta oraingoz prestatu dena oso gutti ote den susmoa dut. Lehengo udan Loiolan egin zèn batzarreak ez zuen horretan gauza garbirik eskaini ez agindu.\* Honela, beste Herriek eta Kulturek, eskoletan liburuak «baztertuz» eta telebista emanez, beren irakaskintza berriztatzen eta beren herritasuna birpizten duten bitartean, gu, geure liburuak prestatuz eta entzun-ikusgailuak ahantziz, geure irakaskintza suntsitzeko eta geure herritasuna itozteko arriskutan gaude.

Hala ere, galduak lirateke ikastolak eta euskal irakaskintza osoa, une honetan telebista erabiltzera beharturik bageunde, Malrauxek Frantziarako eskatu duen bezala. Orduantxe bai, Euskal Herria euskaldunagotzeko eta jatorragotzeko izan beharrean, deserriratzeko eta erdalduntzeko izango liratekeela ikastola eta irakaskintza. Beraz, arazo honek Euskal Herriaren gaurko eta biharko kulturaren premia zabalago eta oinharritzkoago bat jartzen digu aurrean.

Inguruko kulturak liburuaren kultura bihurtzen ari ziren bitartean, guk hizketaren kultura irauten genuen. Inguruko kulturek irudiaren kultura bihurtzen ari direnean, gu liburu kulturara hurbiltzen ari gara. Eta honela, geure atzerapenean, aurrerapenaren indarrak itorik garamatza. Irtenbidea ez da, ordea, besteen aurrerapena ukatzea eta baztertzea, geuk bizkorrago aurrerago jotzeko kemena edukitzea baizik.

Aspaldiko urteotan, zenbat liburu berri argitaratzen diren begira gaude (ea aurreko urtean baino bat edo beste gehiago ateratzen ditugun aurten). Aldizkari berri bat sortu delako, edo horietako bat hamabosterokotik asteroko bihurtu delako, edo eta erdarazko aldizkariaren bategan euskarazko horrialderen bat gehiago idatzi dutelako, geure euskal kulturaren urrats\* handi bat emana dugula uste dugu. Azken urteotan euskal argitaletxe berriak eta indartsuak (!) sortu direla eta, euskararen (eta euskal kulturaren) etorkizuna eskuratua dugula iruditzen zaigu.

Euskara hutsera bihurtu dugu, antza,\* geure euskal arazoa eta euskal kultura. Eta euskararen problemetan murgilduta gabiltzalarik, hitz idatziaren liluramenaz\* liluraturik gaude. Baina hizkuntza kulturaren oinharria eta ontzia bada, zeragatik da, komunikabide nagusia eta beste mintzaira modu guztien iturria delako. Eta, gaurko kulturen dinamikan, hizkuntza bat hitzaren mintzaira hutsez baliatzen bada, itortzeko arriskutan\* dabil. Irudiaren min-



tzairak demaion\* arnasa behar du hizkuntzak, gaurko gizona irudiaren kultur bidetik baitoa.

Alde honetatik oso murriztua\* dugu euskara eta euskal kultura. Ez dugu benetako aldizkari grafikorik, ez dugu euskal zinemarik (baten batek euskal zinema zer den galdetuko dit beharbada), ez dugu euskal telebistaren asmorik ere. Eta, horrela, euskara eta euskal kultura irudiaren kultur mundu honetan arnasarik\* gabe itotzen ari da.

Euskal Herria Euskal Herri bihur dadin, euskara zaharri irudiaren arnasa berria eman beharko diogu. Neure susmoa hauxe dut, ordea: aspaldi honetan Euskal Herria «euskal herriago» bihurtzeko asmotan, geure indar eta eginahalak hitzaren kultura bat indarberritzean erabiltzen ari garela; hortxe agortuko ditugula ahalmenak, eta birtartean irudiaren kultur munduak irentsiko gaituela. Gaurko Euskal Herrian kemen handia behar da, hitzaren kulturatik irudiaren kulturarako urrats hori emateko; baina... eman beharra dago. Horretarako, gure kulturbideak eta kulturbide hauk\* lotzen dituzten egiturak\* behar lirarteke eten eta irauli.

Ez ahal\* zaizkit neure gogoeta\* hauengatik euskal liburu saltzaileak asaldatuko,\* Malrauxen kontra Frantziakoak egin diren bezala! Izan ere, iruditzen zaidanez, euskal liburuak kenduta ere, zoritxarrez ez lukete hutsune handirik somatuko ez beren dendetan ez beren sakeletan, batez ere orain arte ikastolako testu liburuez irabazten dutena hain gauza exkaxa izanik. Eta beldur naiz, euskal zinema eta euskal telebista (?) ere ez lirartekeela haren «galeratik» aberastuko.


Bestalde, ni neu ere neure indartxoak ematen ari naiz argitaldari batetan, liburu eta aldizkariaren artean, eta honetan iraun beharko dut, zeren\* eta, zinemaren eta telebistaren mundura sartuko banintz, burua galdua nukeela esango bailidakete, edo, bestela, orduantxe galduko bainuke. Horregatik, Euskal Herrian hitzaren kulturgintzan ari direnok, errazago barkatu ahal izango diote beren arteko bati, beren monopolioa (?) puskatu behar dela esaten duenean.

Euskal hitzaren kultura «euskal» irudiaren kulturaren dinamikan jarri behar da. Eta, horretarako, ikastolatik hasita, eta «euskal» irudiaren kultura lantzeko egiturak sortu eta indarrak prestatu eta bultzatu, zinemaren eta telebistaren eta aldizkari grafikoen bidez batez ere.

Chaban-Delmas jaunak ez du Frantziako hauteskundeetan\* irabazi; eta Frantzia, bere galbidean, bere frantsesitasuna galduz joango da nonbait (!). Eta, zoritxarrez, ez zaigu beste Malraux jaunik ez Chaban-Delmas jaunik Euskal Herrira oraingoz behintzat etorriko; eta herriaren indarrak piztu beharko dira. Bestela, geure galbidean abiatuta gaudelarik, geure euskaltasun eta herritasun zaharrean itoz joango gara, eta, birpizten ari garelakoan, geure heriotz bide labaina\* irekiko dugu, «izandako» Euskal Herriaren itxaropenik gabe.

Paulo AGIRREBALTZATEGI

bageunde, **bagengoz**  
digu, **deusku**  
dio, **deutso**  
diogu, **deutsagu**  
diote, **deutsoe**  
dit, **deust**  
garamatza, **garoaz**, eramaten gaitu  
genezake, **geinke**  
lidakete, **leuskide**  
zaigu, **jaku**  
zaio, **jako**  
zait, **jat**  
zaizkit, **jataz**  
ziezagukeen, **eiskigun**



# MUGALDE

## Literatur Sariak

Hendaiako MUGALDE liburudendak ondoko literatur sariok eratzen ditu:

### Elaberria

1. saria 5.000 franko berri
2. saria 3.000 franko berri
3. saria 2.000 franko berri

### Saioak

1. saria 5.000 franko berri
2. saria 3.000 franko berri

### Poesia

Sari bakarra: 5.000 franko berri


### OINHARRIAK

1. **Gaia:** gaurko Euskal Herriaren egoera sozio-politikoak.
2. **Hizkuntza:** euskara batuan, Euskal Akademiaren erregelen arauera.
3. **Forma:** lanak originalak izanen dira, argitara eman gabeak eta makinaz idatziak, folio edo DIN A-4 paper neurrian, tarte bitatik bat zuri utzirik, bakoitzetik hiru kopia bidaliz.
4. **Luzera:** elaberriak 60 horrialde inguruko lanak izan beharko dira; poesian, poema guztien artean, 600 puntu; eta saioetarako ez da neurrik jartzen.
5. **Epea:** lanok MUGALDE liburudendara bidali beharko dira (37, Boulevard De Gaulle — 64700 Hendaye) 1974.eko abenduaren 2rako, ezagugarri batez firmatuz, aparteko gutun batetan egilearen izen-deiturak eta bizilekua ezarriz.
6. Epaimahaikoak eratzailleek izendatuak izanen dira, eta 1974.eko abenduaren 28rako emanen dituzte beren erabakiak. Hala egitea komeniko balitz, **accessit** batzuk ere eman litezke, goiko sariez gain.
7. Lanen nolakotasuna exkaxa balitz, sariok emateke gelditi litezke.
8. Antolatzaileek lan sarituen argitaratze eta banatzeko eskubide guztiak beren eskuetan hartzen dituzte bost urtetarako.
9. Oinharriotan egon daitezkeen duda-muda guztien erabakitzea eratzailleentz egitekoa da.

## Beste mundu baten mezulariak\*

Erdaraz, «airean dabiltzan zer ezezagunak deitzen dituzte izenez, eta hitz laburrez «ovni». Euskaraz beharbada «airontzi» hitzarekin izenda genitzake. Eta idazlan honetan hala eginen ditugu.

Beste mundu batetik heldu diren airontzi horietan, jendeak komunzki ez du sinesten. Pentsatzen baitu, ixtorio-mixerio horik\* ameslari batzuen asmakinunak direla. Hala ere, egun,\* munduko jakintsuen artean, mila dira, airontzi horien izatearen ikertzeari seriozki lotuak direnak.



Ez da gai hori oraingoa. Duela zenbait mila urte ere aipu ziren «airontzi harrigarri» horik. Hego Amerikan, duela bizpahiru urte, zenbait ehun mila pertsonak beren begiz ikusi ahal izan dituzte ehun eta berrogeitamar baino gehiago airontzi, le-  
erro le-erro elkarrekin iragaten.\* Brasilen, duela zenbait urte, ostikolarien edo futbolisten partidu bat gelditzen da mementorik beroenean (eta esan gabe doa, ostikolarien\* horrela geldierazteko, zerbait haundi behar dela); eta, ostikolariek bezala, haien ikusteko bilduak zirèn hogeitabost mila pertsonak ere ikusten dituzte berrogeitamar bat airontzi, kirolpentzearen\* gainetik ziuntan\* iragaten.

Milioika dira, gaurko egunean, oraino inork ezagutzen ez dituen delako airontzi horik beren begiz ikusi dituztela dioten jendeak. Bakar zenbaitek, airontzi horien barnean diren izakiak berak ere ikusi dituztela darasate.\*

Guk bezala beste anitzek\* ez dituzte ikusi; baina horrek ez du esan nahi, bistan da, ez direnik. Jakintsuetaz bestalde, militar erakundeak,\* hala nola amerikarren pentagonoa bera ere, hurbildik jarraitzen zaizkio, ximistaren lasterra duten airontzi horien misterioari. Eta hauek, zerbaiten jakitera heldu badira ere, orainokoa\* ez dute hitzik salatu.

## Titoren eta Sobiet Batasunaren arteko harremanak

Jugoslaviako «Tanjug» agentziak zabaldu duenez, Titok hitzaldi bero bat izan du Esloveniako Jesenice hirian, «kominformista» bezala salatu dituen isilpeko talde politiko batekoen kontra.

Irailaren\* lehen hamabostekoan zabaldu zen, Belgradon gertatzen ari zen zerbaiten zurrumurrua: 50 edo 40 lagun atzemanak\* zituela poliziak. Antititoista omen da talde hau, eta, gainera, Jugoslavia barnean Sobiet Batasunaren aldeko politika eratzen ari da nonbait. Talde horren buruzagia, Titok salatu duenez, herbestean dago, eta herbesteko indarrez eragindako taldea da «kominformista» hori, kanpoan inprimatutako propagandagai gaitza\* aurkitu baitio poliziak.

1948.az geroztik herbesteratutako jugoslaviar komunista desbidetu eta sobiet zaleek osatzen dukete,\* «stalinista» bezala ere aipatua den multzo hori. Arazoa tribunaletara eramana da, eta hauzitegiak esan beharko du nor den subertsio horren eragile nagusia, esan du Titok.

Talde horrek Gobernuari eta Jugoslaviako alderdi komunista ofizialari botatzen dion salakuntza, «marxismo-leninismoaren ideologiatik» urruntzea da. Beraz, alderdi komunista berri bat sortu beharko litzateke. Gorabehera hauengatik, jugoslaviar Gobernuak ohar bat zuzendu die Sobiet Batasuneko eta Poloniako Gobernuari, Jugoslavia barruko arazoetan izan ote dezaketen eskuharmenagatik.\* Esan denaren arabera,\* Sobiet Batasunean, Kiev hirian, bizi da isilpeko gidari horietako bat, Mileta Perovic; eta bestea, Vlado Dapcevic, Brusselan dago 1959.az geroztik, eta handik zuzentzen du talde sobiet zale bat.

Arazo hauk\* tarteko direla, nahiko ozpindu\* dira nonbait Titoren eta Sobiet Batasunaren arteko harreman anaikorrak. Hungarian harmadaren\* mugimendu eta maliobra errezelagarrak\* egin dira garai berean. Sobiet Batasunak 70.000 bat harmagizon eduki ohi ditu Hungarian; baina, Austrian esan denez, 60.000 gehiago etorri dira maliobra horietarako. Jugoslaviak ere erne jarri du bere harmada. Albiste ofizialik ez bazen ere, hala esan da irailaren bigarren hamabostekoan. Dena dela, ezin daiteke oraindik esan, egoerá\* gerla atariraino heldu denik.

Atzemanak izan diren sobiet zaleen haizia, ikusi da tribunaletan. 32ren judizioa irailaren 19an izan da, oraindik Kulikof sobiet harmadako Kontseilu Nagusieran buruzagia Jugoslavian zegoela; eta hilabetearen 2an ezagatu da epaia. Urte betetatik hamalau urtetarainoko zigorrak eman zaizkie epaituei. Tribunalak haintzakotzat\* hartu dituen salakuntzak, hauk dira: Estatuaren burujabeasuna hausteko eginahalak egitea, eta erregimena alda erazten eta Jugoslaviako «autogestio» moldea desegiten saiatzea.

Hasera\* batetan bestelakorik uste izan bada ere, tribunalen prozedurak zenbait hilabete iraun du. Izan ere, orain jakin denaren arabera, talde hau apirilean atxilotu zuen poliziak; eta geroztik nahiko sokatira izan da, agi\* denez, Sobiet Batasunaren eta Titoren diplomaziaren artean. Ofizialki esan denez, garbi geratu da, judizioaren ondoren, Sobiet Batasunak arazo honetan izan duen parteharmena.

1948.ean Titok eta Stalinek beren harremanak hautsi zituztenetik, ez dira harreman horik hain atezu\* gorrian sekula egon. Eta, bien bitartean, Balkanetan ba du China handiak non koka\* bere oina, Rumania eta Jugoslavia adiskide dituela.

## Soldaduek ere ba dute esatekorik

Frantses harmadako soldaduak kalez kale hasi dira beren eskabideak egiten. Draguignan hirian egin dute beren kalejira, Prefeturaren aurrean eseraldi\* bat ahantzi gabe. Bertan egontokia duen erregimenduko 200 soldatu kalera atera dira, esku-muturrak gora eta jende txundituaren\* aurrean beren eskeak aldarrikatuz: «Esanbide libre eskatzen dugu», «Dirua nahi dugu, ez obusak». Hots,\* soldata hobeak gura dituzte eta koartelean propagandarako libertate osoa.

Dirudienez, Frantziako koartelean ageri bat dabil eskuz esku, *Ehunen Deia* deritzana. Dei hau antimilitarista da. Ez dakigu, 200 soldadu horien kalez-kalezko agerpenak zer garrantzi izan dezakeen. Dena den, ezkerreko alderdiak berehala agertu dira manifestatzaileen alde.

## Indiako jendeketaren etorkizuna

Indiako Zientzi eta Teknologi Batzorde\* Nazionalak idatzi duenez, 2000. urtera irixtean,\* Indiaren egoera ezin larriagoa izanen da. Hamahiru ekonomista eta soziologok osatzen dute batzorde hau, eta argitara eman duten txostenean\* gaurko egoera eta etorkinuneko prospektiba bat azaltzen dute.

Indiak, urtero, 13 milioi bizilagun gehiago ditu. Jendeketaren hazkuntza hau dela eta, indiarrek geroz eta janari gutiago dute «per capita». Bizimoldeen oinarrizko aldaketa bat eskatzen du batzordeak. Otoruntz\* eta bizitoki moldeak, lan metodoak, oporraldiak..., dena da aldatu beharrekoa, haien eritiz. Atomo indarra premiazkoa du Indiak, beste energi moduen parean.

Indiako arboladi eta basoak ere zaindu beharra dago. Izan ere, urtero 100 milioi tonelada egur ateratzen dira, sutarako bereziki. Baso mozketari hori, gaur doan bidetik, 2000. urtean 200 milioi tonelatara helduko dateke\*; eta, uste baino lehenago, lurra bere hezetasuna\* galduko duke\* horrela.

Nolako izango da India, XXI. mendearen hastean? Kalkulu arabera, gutienik 900 milioi bizilagun izango ditu. Energi beharra eguzkitikoz aiseko da. Janari premia itsas belar eta lantegietan egindako proteinez beteko da 50%tan. Janaririk ez dutenak, pastila bidez elikatuko\* dira. Indiarrak —jendetzaren ugariak eraginik— kibbutzim-etan biziko dira, bizitzá elkartasunean eginez. Irakaskintzá talde handietan emango da, telebistaren eta era askotako ikus-entzun tresnen bidez.

Honelatsuko ikuskizuna eskaintzen du batzordearen txosten honek. Oro\* har, oso ikuskizun iluna 2000.eko gizarteari eskaintzen zaiona. Gaurko teknologo eta soziologoek ikusi beharko dute, nola salba, Indiako ekonomiak leporatuko duen jendetza izugarri hura.\*

### Idazleak:

Joseba INTXAUSTI  
Gexan LANTZIRI

dezake, **daike**  
dezakete, **daikee**  
die, **deutse**  
dio, **deutso**  
genitzake, **geinkez**  
zaio, **jako**  
zaizkie, **jakez**  
zaizkio, **jakoz**

**Ehun urte**


**baino gehiago**

**diru aurreztapena**

**laguntzen**



**BANCO DE BILBAO**



**HARRI BATEKIN HASI ZEN**

# IKASTOLAK

## nola idatz: 5 ° ala ° 5?

Euskaltzaindiak erregela bat emana du arazo honetaz (ikus *Euskera* aldizkaria, 1971). Erregela honen arabera, % 5 idaztea onhartzen da. Arrazoina: euskararen izakerak ordena hori eskatzen duela.

Hala ere, *Euskera* berean honela mintzatzen da Euskaltzaindia, hartu\* erabakiei buruz: "Hartu diren erabakiak, ez dira ezin aldatuzkoak. Geroago punturen bat beste era batera aldatu behar dela ikusiko balitz, beti gelditzen da horretarako atea zabalik". Hau honela delarik, puntu honi buruz dudak eritzi azaltzera saiaturiko naiz.

Sinbolo hau (%) eta beste batzuk\* erabiltzeko, Euskaltzaindiak ematen duen arrazoinak, ez dut uste, nagusiena izan behar duenik. Ba dira beste arrazoin batzuk ere; eta, hauengatik, aipatu\* ordenaren aldatzea eskatuko nuke. Ikus ditzagun arrazoinok.

Inguruko hizkuntzetan 5 % idazten da. Gero, mintzatzean, ordena berean esaten da: *cinco por ciento*, *cinq pour cent*, *five per cent*, eta abar.

Egia da, euskara mintzatuan *ehuneko bost* (*ehunetarik bost*) esaten dela. Eta puntu honetarako ba du arrazoinik Euskaltzaindiak. Baina mintzatzen den ordenan idatzi behar ote da?

Hara! Nire ustez, honelako numero eta sinboloek beren multzotasunean dute benetako esannahia. Numero hutsak edo sinbolo hutsak ez digu ezer adierazten. Irakurri ere, multzo bezala egiten dira; eta horregatik, hainbeste kasutan, idatzi modu batetara eta irakurri bestetara egiten dira. Adibidez: £ 3 = *three pounds* (hiru libera). Ca SO<sub>3</sub> = *sulfato de calcio* (kalzio sulfatua).

Ikusten denez, idazteko modua eta esatekoa desberdinak dira. Baina, horrela izan arren, ez da nahasterik sortzen.

Esandakoagatik, nik neuk 5 % idaztea proposatuko nuke, nik dakidala behintzat, forma unibertsala delako. Eta bide hau egokiena delakoan nago. Bestela, mundu guztian erabiltzen diren sinboloak aldatu egin beharko genituzke, geure mintzairara moldatuz. Eta aldaketa hori, ez dut uste beharrezko denik, ez eta komenigarri ere.

Argiago ikusteko, beste adibide bat aipatuko dut. Demagun,\* gorputz baten tenperatura adierazi nahi dugula. Graduka egiten dugu, noski. Baina, zehaztasun gehiagorako, zernolako graduak diren adierazi beharko dugu. Idaztean, ez dut uste inork eztabaidatuko duenik, mundu guztian erabiltzen den nomenklatura erabili behar dugula. Ez eta, mintzatzean eta irakurtzean, euskararen joera eta joskera gorde behar dugula ere.

Hcrik\* guztiok kontutan harturik, nik neuk honela egiten nuke: idaztean, 18° C; irakurtzean, hemezortzi Celsius gradu. Nahiz eta mintzatzean *Celsius gradu* esan, inola ere ez nuke 18 ° idatziko. Modu berean, 200° F idatzi eta *berrehun Fahrenheit gradu* irakurriko nuke.

Ikusten denez, graduen seinalea, C eta F letren aurrean egon arren, haien ondotik irakurtzen dugu, eta ez da nahasterik sortzen. Lehen esan dugun legez,\* °C sinboloa beronen multzotasunean irakurtzen dugu.

Aipatu\* arrazoinak kontutan harturik, sinbolo hauen idazteko modu unibertsala proposatu nien zientzi taldekoei, Donibane Lohitzunen izan berria den Udako Euskal Unibertsitatean. Jendea ados\* geratu zen, eta aipatu modutara idaztea erabaki genuen.

Bukatzeko, esandakoaren laburpen gisa,\* Estatistikan behar diren berba bi aipatuko ditut. Lehena, *portzentaia* hitza da; eta hitz hau, ehuneko zenbatekoa abstraktuki adierazteko behar dugu. Bigarrena, *ehuneko* hitza da; eta hau, numeroekin batera erabiltzeko behar dugu. Bien arteko desberdintasuna adierazteko, bi adibide jarriko ditut:

"Frogatu denez, nuklear zentral batzuen inguruan, minbien\* eta hilortzeen\* *portzentaia* handitu egin da".

"Hiri honetan bizi diren pertsonetarik 49 % (*ehuneko berrogei* eta bederatzi) gizonetakoak dira".

J. R. ETXEBARRIA

## taldeko irakaskintza

Irakasle bakarrak nekez menpera ditzake gai guztiak (matematika modernoa, linguistika, zientziak, etab.) eta nekezago beharbada gai hauen didaktika. Ez zaio gauza erraza izaten, hezkuntzaren\* teknologian eta irakaskintzarako psikologian azken urteotan egin diren aurrerapenak ezagutzea.

Irakasle bakarrari oso zail gertatzen zaio, ikasle bakoitzaren egoera kontutan harturik, ikastaldiak ematea. Irakasle askok jaramonik\* gehiago egiten diote gaiari berari eta haren azalpen hutsari, haurren benetako beharrei baino: ez dakite irakaskintza bakoitzaren\*. Horregatik, haur askok galdu egiten dute beren norabidea ikasturteko lehen egunetan, eta ez dira gero berriro bideratzen.

Irakasle bakarrak, edozein profesional bezala, gero eta ments\* gehiago izaten du, benetako "kasketaldiak"\* izaten ditu, eta, batez ere, ez du aurrera egiten, besteren bultzagarririk eta laguntzarik izaten ez duelako.

Ordea, irakasle talde batek haur multzo baten ardura hartzen badu (adibidez, EGBko 3. eta 4. ikasturtekoak elkartuz, edo bizpahiru ikasgelatakoak batuz), orduan irakasle bakoitza gai batean bereizitzen\* da, nahiz eta haurrekin irakasle guztiek parte hartzen duten orotan.\*

Hizkuntza arloan, haurren artean taldeak egin daitezke. Irakasle berezitua,\* ikasle atzeratuak gelditzen da; beste irakasleak, aurreratuekin. Zenbait arazotan, haurrek talde haundi batean lan egiten dute, irakasle baten begi menea.\* Bitartean, beste irakasleek beste zerbaitetan ihardun dezaket, adibidez, programak prestatzen, haur bakoitzarekin berba egiten (*kuratoregoa\** deritza eginkizun honi). Irakasleek, elkarrekin lan egiten ohituak direnean, lan ordu desberdinak ezar diezakiete haurrei: adibidez, matematikan gaizki dabilen haurrak, ordu pare bat eman diezaioke gai honi; baina, horretarako, ekintza desberdinak eta bere beharren arabekoak\* eskaini behar zaizkio. Horrela, irakasle taldeak haur bakoitzagan bateratzen du bere lana, bat\* bederari ikas ekintza egokienak ezarri.

Taldeko Irakaskintzan —elkarren esperientziak ezaguturik, programazio eta ebaluazio arazoak denon artean eginik— irakasleek laguntza haundia hartzen dute bata bestea gandik, irakasleak hobetzen dituzte, eta nork bere jakintza biziki emendatzen\* du.

Taldeko Irakaskintza (ingelesez "Team Teaching" deritza) oso hedatua\* da anglosaxoniarrak eta eskandinaviar lurraldeetan; eta fruitu baliotsuak ematen dihardu: alde batetik, irakaspidearen bakoitzapena\* errazten duelako, eta, bestetik, irakasle bikainak moldatzen dituelako. Horrela, irakasle berriak ez du ikas ekinaldi alferrikako eta neketsurik egin behar, eta ez du arriskurik, irakasle gaixo eta herren\* bilakatzeko,\* ez eta, irakaskintzari buruz eta bereziki autoritateari buruz ideia faltsuak dituen hainbeste eta hainbeste irakasleren pareko izateko. Taldeko lanak —lankideen artean askoikasiren bat beti egoten baita— lastertu egiten du irakasle berrien moldaketa.

Beste abantail\* bat deserdirapena dugu. Irakasle taldeak, lan egiteko kontuan, nolabait berejabe dira, "kolegio ttipi" bat balira bezala ari baitira. Erabakiak demokratikoki hartzen dira. Horretarako, jakina, heldutasuna\* behar da; baina heldutasuna, denok dakigunez, erabakiak hartzean lortzen da. Taldeko buruzagiek zuzendariarekin batean deliberatzen\* dute, kolegio oscarri dagokion guztia. Sarri askotan zuzendaria bera ere taldeko buru izan ohi da.

Taldeko Irakaskintzak, hala ere, ezin ditzake irakaskintzako gaitz guztiak senda (adibidez, lanbide aniztasunera\* behartzen eta herbaltasuna\* sortzen duen soldaten eskastasuna, etab.); baina, irakaslearen lanbidea hobetzera lagun dezakeen antolaketa eskema bat eskaintzen du.

Maria RUBIES  
Barcelonako ICEkoa

dezake, <b>daike</b>	digu, <b>deusku</b>	ditzake, <b>daikez</b>
dezakete, <b>daikee</b>	diote, <b>deutsoe</b>	nien, <b>neutsen</b>
diezaioke, <b>deiskio</b>	ditzagun, <b>daiguzan</b>	zaizkio, <b>jakoz</b>

# FEDEA eta EKINTZA

## Ingalaterrako Eliza eta Gobernuak

York hirian bildu den Eliza Anglikanoaren Sinoduak erabaki duenez, hemendik aurrera apezpikuen izendapena Elizak berak egingo du, eta ez, orain artean bezala, Ingalaterrako Erreginak. Deliberamendu hau boto baten aldearekin bakarrik hartu dute, Yorken bildu diren apezpikuek: 271 alde, 270 kontra.

Onhartua izan den proposamen hori Norman Anderson profesoreak aurkeztu zuen, eta Ramsey Canterburyko artzapezpikuaren txaloekin proposatu ere. Erabaki honekin tradizio zahar bat hausten da, XVI. mendetik Eliza Anglikanoa Erregeren menpekotzat aitortu baita. Oraingo erabaki horrek, Koroari mendez mende aitortu zaion eskubidea ukatzen dio. Baina, bozketatik\* ikus daitekeenez, ez da hori burrukarik gabe deliberatu. Parlamentuko Ganbara Garaian hainbat apezpiku dituen Elizak, ez du nahi izendapenatarako Gobernuaren babesik. Eta horra, onhartutako jokabide berriaren beste alde bat: Eliza Anglikanoak, zuzenean eta Gobernuaren eskuharmanik\* gabe eramango ote ditu bere gizonak Ganbara Garaira? Elizatik bertatik, libertate osoan egingo ote du politika Ingalaterran?

Ez dirudi, hala ere, «establishment»aren aurkako burruka sustraizkorik\* sortuko denik hor. Eliza Anglikanoaren teologo eta elizgizonak aski\* zentzuzkoak eta kontserbakorrek dira. Hain zuzen, aipatutako erabaki hori hartu duen Sinodua bera, gogor eta kontra ekin\* zaio Kontseilu Ekumenikoaren jokabideari, erakunde\* honek Askapen Mugimenduak laguntzen omen baititu eta, bide batez, arrazismoa pizten. Kontseiluaren zat pentsatua zegoen 17.000 liberatako\* laguntza, 1.000 liberatara mugatu du Sinoduak.

Baina Kontseilu Ekumenikoak izan ditu bere defendatzaile suharrak\* ere: Oliver Tomkins Bristoleko apezpikua eta Howse artzadiakonua. Ondoko urteek esango dute nondik nora doan Eliza Anglikanoa.

## Elizen Kontseilu Ekumenikoaren politika

Kristatu Eliza guztien erakunde izan nahi duen Kontseilu Ekumenikoak Berlinen bildu du bere Batzorde\* Nagusia. Bi izan dira bilkura\* honetako eztabaida gaiak: erakundearen politizazioa eta ekumenismoaren gelditzea. Arazo hauen inguruan ihardun dute 90 naziotako eta 267 Elizatako ordezkarien elkar hizketek.

Jakina denez, Kontseilu Ekumenikoak laguntza handia eskaintzen die bereziki Afrikako Askapen\* Mugimenduei, eta berezikiago Portuges Afrikan, Hego Afrikan eta Hego-mendebaldekoan\* arrazismo zuriaren kontra burrukatzen diren mugimenduei. Kontseiluak eman duen dirua, alemaniar ordezkarien ustez, ez da beti laguntza gizatiar\* bategararako erabili, eta bai sarritan gerlarako eta odol isurketarako. Jokabide horren kontra jaiki da Alemaniako Lutertar\* Eliza, bide batez Ekialdeko\* Estatu komunistetan agertzen den minorien zapalkuntza salatuz, Kontseiluak nolabait ere moztu nahi baitie laguntza mugimendu nazionalistei.

Biltzarrea bukatu denean, orain arte bezalaxe jarraitzea onhartu da, hau da, datorren urterartekoa zèn programa bera luzatzea (119 boz\* erabakiaren alde, bat bakarrik kontra). Hegoaldeko Koreari eta Filipinei dei bat egin zaie, giza eskubideen kontra atxiloturik\* dituztenak aska ditzaten. Palestinarentzat ordezkari\* bat eskatzen da Ginebrako Konferentziarako. Vietnamgo berreraikuntzarako\* laguntzari jarraitu egingo zaio. Hirugarren

Mundua laguntzeko banku bat sortzen da, lurralde haietako laborantzari, artesautzari\* eta etxegintzari erreditu txikiko prestamenak eskaintzeko.



Philip Potter elizartzaina  
Elizen Kontseilu Ekumenikoaren idazkari nagusia

## Lourenço Marques-eko artzapezpikuaren dimisioa

Aita Sainduak onhartu egin du Lourenço Marqueseko artzapezpikuaren dimisioa. Orain hiru hilabete, Custódio Alvim Pereirak **Die Welt** Alemaniako astekariari deklarazio nabarmen batzuk egin zizkion, espainol misiolariak zabaldu zituztèn albisteak ezeztatu nahirik. Misiolariok Londreseko **Times** egunkariari salatu zizkioten portugez hamadaren\* basakeriak. Orain, basakeria haik\* egiazkoak zirela agertu denez gero, artzapezpikuak bere kargua uztea deliberatu du, edo delibera erazi diote.

## Bi apezpiku Chinatik deituak

Urriaren lehenaren inguruan Chinako Herritar Errepublikaren zilarrezko eztaien ospakuntzara deituak izan dira bi apezpiku katoliko. Cuernavacako Méndez Arceo eta Recife Helder Cámara dira apezpiku horik\*. Bi deiok, uste denez, ez dute aldatuko Elizaren eta Chinako Herri Errepublikaren arteko harremanik, bi apezpiku hauei xuxenean eta pertsonalki egin baitzaie deia. Agi\* denez, Maok Hirugarren Munduarekin daraman politikarekin lotu bear da inbitazio au, apezpiku biok baitira Latin Amerikako arazoan adierazle bizkorrenak. Hala ere, esplikagarri izan arren, nahiko harrigarri gertatu da, orain arteko ohi-turetarik hain urrun izanki.



Helder Cámara, berriro ere, Nobelgaitzat proposatua izan da, nahiz eta Italiako **Giovanni per la Famiglia** mugimendu kontserbakorrek berau eta beste 300 bat elizgizon «minoria burugabe» batean sartu.

Joanes GOIA

die, **deutse**  
dio, **deutso**  
diote, **deutsoe**  
ditzaten, **daiezan**

zaie, **jake**  
zaio, **jako**  
zizkion, **eutsozan**  
zizkioten, **eutsoezan**

# GURUTZEGRAMA (48)



**Ezker aldetik eskuin aldera.** 1: Urte asko duena.—2: Ozta ozta, justu justu (alderantziz).—3: Hobena, kulpa (artikuluarekin).—4: Bokala. Euria bukatzen deneko mementoa (artikuluarekin). Bokala.—5: Trankila (itsasoa). Bokala. Bilboko futbolaria (alderantziz).—6: Esaten duena (alderantziz). Gizon zaharra.—7: Kontsonantea. Biguna ez dena (artikuluarekin). Kontsonantea.—8: Nola jartzen da burdina, bero bero dagoenean? (artikuluarekin).—9: Konoa, zentzua, animalien oldea.—10: Non izan da aurtengo Euskal Unibertsitatea?

**Goitik behera.** 1: Kolpe batek azalean uzten digun kolorea.—2: Nota muskala (alderantziz). Kontsonantea.—3: Izan aditzaren forma (alderantziz). Bokala.—4: Kontsonantea. Gose denbora (alderantziz). Kontsonantea.—5: Gaixoa (alderantziz eta artikuluarekin). Ur irakinetan jatekoa ondu.—6: Toki horretara. Hotzaren kontrakoa (alderantziz).—7: Ahotik linburtzen den bitsa, haguna. Pisu gutikoa, lasterra (artikuluarekin).—8: Kontsonantea. Donostiako apezpikuaren deitura (alderantziz). Kontsonantea.—9: Bilbo inguruko ibarra. Bokala.—10: Emea ez dena. Kontsonantea.—11: Txori beltza (alderantziz).



**Goitik behera.** 1: Ubel.—2: La. D.—3: Gara. O.—4: Z. Gose. N.—5: Eria. Egosi.—6: Horra. Bero.—7: Adur. Arina.—8: R. Argala. N.—9: Asua. E.—10: Ar. N.—11: Bele.

**AZALPENA. Ezker aldetik eskuin aldera.** 1: Zahar.—2: Doi.—3: Errua.—4: U. Aterria. E.—5: Bare. A. Lasa.—6: Esale. Agure.—7: L. Gogorra. B.—8: Goria.—9: Sen.—10: Donibanen.





## MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jantziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI  
Muelle de Uribitarte, 15 BILBO - 9

# HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

## Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

ABANTAIL, ventaja.  
 ADOS, akort, conforme.  
 AGIAN, beharbada, nonbait.  
 AGI DENEZ, dirudienez.  
 AGINDU, prometatuta.  
 AGORRIL abuztu. (Euskara baturako, idazle askok —bereziki iparraldekoek— nahiago dute agorrril hitza, abuztu baino).  
 AHAL, baldinba, oxala.  
 AHANTZI, ahanztu, ahaztu.  
 AIHERKUNDE, aversión.  
 AIPATU, aipatutako, aipaturikako, aipaturiko.  
 AITZIN, aurre.  
 AITZINA, aurrera.  
 AITZINATU, aurreratu.  
 AITZINESKOLAKO, preescolar.  
 AITZITIK, al contrario.  
 ALDARRIKATU, manifestado a gritos.  
 ALDEZ EDO MOLDEZ, de una forma u otra. (Ikus «Axularren Hiztegia».)  
 ALDIZ, berriz, ordea, ostera.  
 ALHA IZAN, funcionar. (Erlouja alha da, el reloj funciona).  
 ALTZO, seno, regazo, sein.  
 AMORANTE, amante, querida.  
 ANITZ, asko.  
 ANIZTASUN, askotasun. (Lanbide aniztasun, pluriempleo).  
 ANTZ, semejanza, ressemblance. (ANTZA, dirudienez).  
 ARABERA, arauera, según, conforme.  
 ARABERAKO, proporcionado.  
 ARE, orañdik, aún, encore.  
 ARNASA, hats, aliento, haleine.  
 ARRAKASTA, éxito, succès.  
 ARRISKUTAN, en peligro. (ARRISKUAN, en el peligro).  
 ARTEGATASUN, urduritasun, inquietud, preocupación.  
 ARTESAUTZA, artesanado.  
 ASALDATU, turbado, desasosegado, incomodado.  
 ASKAPEN, liberación.  
 ASKI, nahiko.  
 ASKO, aski, nahiko.  
 ATALAUURRE (atarí aurre), antesala.  
 ATEZU, tiradura, tensión.  
 ATXIKITZE, atxekitze, mantener, conservar.  
 ATXILOTU, atzilotu, detenido, aprehendido.  
 ATZEMAN, atxeman, atzilotu, detenido, aprehendido.  
 AXOLA, ardura.  
 AZKAR, indartsu, sendo.  
 BAIKORTASUN, optimismo.  
 BAITEZPADAKO, beharrezko, esencial.  
 BAKOITZEKO, por cada.  
 BAKOITZE, individualizar.  
 BAKOITZAPEN, individualización.  
 BALAKA, lisonjear.  
 BALIATZE, erabiltze.  
 BARIK, gabe.  
 BAT BEDERA, bakoitz. (Ikus «Axularren Hiztegia».)  
 BATZORDE, comisión, comité.  
 BATZUK, zenbait. (Batzuek aktibo, batzuk pasibo).  
 BEDEREN, gutlenez, behinik behin, behintzat.  
 BEHAR, obligar. (BEHARTU, obligado).  
 BEHARI, observador, espectador.  
 BEHINGOAN, berehala.  
 BELAUNALDI, generación.  
 BEREITZE, especialidad. (BEREITZE, separar).  
 BEREZITU, especializado. (BEREIZTU, separado).  
 BERRERAIKUNTZA, reconstrucción.  
 BESTENAZ, bestela.  
 BILAKATZE, bihurtze.  
 BILDUMA, colección.  
 BILKURA, bilera, reunión.  
 BIZ, izan bedi. (Izan aditzaren forma).  
 BIZKITARTEAN, sin embargo.  
 BOZ, voto.  
 BOZKETA, elección por votos.  
 BURRUKA, burrukea, la lucha. (Azen-tuak hitzaren artikulua adierazten du).  
 BURURATU, llevado a término, realizado.  
 DAGOENENKO (dagoen orduko), honez gero, para ahora.

DAKUSAGU, ikusten dugu.  
 DAMURIK, zoritzarrez.  
 DARASATE, parlotean. (Eras(i) aditzaren forma. Ikus «Axularren Hiztegia».)  
 DATEKE, da nonbait.  
 DATXEKIO, atxekitzen zaio, se le junta.  
 DEITU, deitutako, deiturikako, deituriko.  
 DELIBERATZE, erabakitze. (Ikus «Axularren Hiztegia».)  
 DEMAGUN, eman dezagun (daigun), supongamos, supposons.  
 DEMAIO, ematen dio (deutso).  
 DERRIGORREZ, baltezpada.  
 DIREINO, diren bitartean.  
 DISEINATZAILE, delineante.  
 DUKE, du nonbait.  
 DUKETE, dute nonbait.  
 DUTEA, ai dute?

EGITARAU, programa.  
 EGITURA, estructura.  
 EGOERA, egoera, la situación. (Azen-tuak hitzaren artikulua adierazten du).  
 EGUN, gaur.  
 EGURATS, atmosfera.  
 EDIREITE, edirete, edirozte, encontrar.  
 EI, omen.  
 EKAI, materia.  
 EKIALDE (eki, sol + alde), oriente, Este.  
 EKIDIN, evitar, rehuir.  
 EKIN, insistentemente aplicado, insistentemente entregado.  
 EKITE, aplicarse insistentemente, entregarse insistentemente.  
 ELE, berba, hitz.  
 ELIKATU, alimentado.  
 ELKARGO, compañe.  
 EMAZTE, emakume, mujer.  
 EMENDATZE, aumentar.  
 ERABAT, guttiz, osoki.  
 ERABAKITZEKE, erabaki gabe.  
 ERABILI, erabilitako, erabilirik.  
 ERAKUNDE, organismo, entidad.  
 ERALGI, xahutu, gastatu.  
 ERASO, ataque.  
 EREDU, modelo.  
 EREMU, extensión de terreno.  
 ERETI, ocasión propicia, momento oportuno.  
 ERORI, jausi, caído, tombé.  
 EROSO, cómodo.  
 ERREZELAGARRI, mesfidagarrí.  
 ESERALDI, jezarraldi, sentada.  
 ESKUALDE, comarca.  
 ESTE, juzgar, reputar, estimar. (Ikus «Axularren Hiztegia».)  
 ETEKIN, mozkin, beneficio.  
 EUSKARA, euskera, el euskera. (Azen-tuak hitzaren artikulua adierazten du).  
 EZEZKOR, negativo.  
 EZEZTATU, desaparecido.

FROGA, probar, demostrar. (FROGATU, probado, demostrado).  
 FUNTSATU, fundamento, basado.  
 GABE, en lugar de, en vez de, au lieu de.  
 GAITZ, eskerza, enorme.  
 GAITZEKO, eskerza, enorme, descomunal.  
 GAITZERARIK, gaitzeraturik, puesto a malas, ido a malas. (Ikus Larresororen «Surtrai Bila», 101. horrialdea).  
 GISA, modu, era; bezala.  
 GIZATIAR, humanitario.  
 GOGOETA, reflexión, consideración.  
 GOGOETAN JAR, ponerse a pensar. (Ikus «Axularren Hiztegia».)  
 GOMENDIO, recomendación.  
 GUTIZ GEHIENAK, kasik guztiak.

HAIK, hareek. Haiek (heiek) aktibo, haik (heik) pasibo. (Ikus Lafitterren «Grammaire Basque», 82. horrialdea).  
 HAINZAKOTZAT, en consideración.  
 HALEGIA (hala + egia), a saber, es decir, esto es. (ALEGIA, ficción).  
 HALTZARI, mueble.  
 HARMADA, ejéxito.  
 HARTU, hartutako, harturikako, harturiko.  
 HASERA, haste, hastapen, comienzo.  
 HAUK, honeek. (Hauek aktibo, hauk pasibo).  
 HAUTESKUNDE, elección por votación.

HAZIL, noviembre.  
 HEDATU, zabaldu.  
 HEGI, ertz.  
 HEGOMENDEBALDE, Sudoeste.  
 HELDU, próximo.  
 HELDUTASUN, madurez, maturité.  
 HERBALTASUN, debilidad, agotamiento, épuiement.  
 HERRA, odio.  
 HERREN, cojo, boiteux.  
 HERTSI, herstu, hestu.  
 HEZ, domar.  
 HEZKUNTZA, hezkunde, educación.  
 HEZTE, educar.  
 HILORTZE, aborto.  
 HOBEN, erru, culpa.  
 HODI, tubo, tuyau.  
 HORIK, hoik, horreek. (Horiek aktibo, horik pasibo).  
 HORTZETZ ETA HAGINEZ (con dientes y molares), con todas las fuerzas.  
 HOTS, a saber, es decir, esto es.  
 HURA, ha.

IA, kasik.  
 IKERTOKI, centro de investigación.  
 IKERTZAPEN, investigación.  
 IKUZTOKI, lavabo.  
 IRAGATE, igarotze, pasatze.  
 IRAIL, septiembre.  
 IRIXTE, heltze.  
 ISTRIPU, estropu (ikus «Axularren Hiztegia»), accidente.  
 ITXARON, iguriki, igurikatu.

JARAMON, kasu.  
 JARRERA, actitud, postura.  
 JASAN, soportado, sufrido.  
 JASATE, soportar, sufrir.  
 JITE, indole.  
 JOAN, joandako, joanikako, joaniko.

KALAPITA, tumulto, follón.  
 KARRIKA, kale.  
 KASKETALDI, manía.  
 KEXU, haserre.  
 KIROLPENTZE (kirola + pentze), campo deportivo.  
 KOKA, colocar. (KOKATU, colocado).  
 KOKATZE, situar.  
 KOPURU, cantidad, suma. Kopuru eta mukuru hitzak latinezko cumulus berbatik datoz).  
 KORRITU, interés.  
 KUDEATZAILE, gestor.  
 KULTURA, kultura, la cultura. (Azen-tuak hitzaren artikulua adierazten du).  
 KURATOREGO, tutorego, tutoría.  
 KURRIDA, manifestación callejera.  
 KUTSADURA, contaminación. (SATSUDURA, polución).

LABAIN, laban, resbaladizo, glissant.  
 LEGEZ, lez, bezala.  
 LEKUKO, testigu.  
 LIBERA, libra.  
 LILURAMEN, encantamiento, fascinación, hechizo.  
 LUTERTAR, luterano. (LUTERTASUN, luteranismo. (Ikus «Axularren Hiztegia».)  
 MAIZ, sarri, sarritan.

MEAGINTZA, minería.  
 MEN, alcance, portée.  
 MENDEBALDE (mendebal + alde), occidente, Oeste.  
 MENTS, déficit, defecto.  
 MEZULARI, mandatarí, mensajero.  
 MINBIZI, cáncer.  
 MUINO, collina, altozano.  
 MUINURTZE (muin, núcleo + urtze), fusión del núcleo.  
 MURRIZTU, mutilado, despojado.

NABARI, notorio, patente.  
 NABARIMEN, vestigio. (Ikus André Tour-nier eta Pierre Lafitterren «Lexique Français-Basque».)  
 NASAIKI, abundantemente.  
 NABARDURA, matiz, nuance.

OIHARTZUN, eco.  
 ONEZ ONETARA, a buenas.  
 ORAINOKOAN, orainartekoan.  
 ORDEZKARITZA, delegación.  
 OREKA, equilibrio.  
 OREN, ordu.  
 ORO, guzti.  
 ORO HAR, en conjunto.  
 OSTEAN, ondoan, ondoren.  
 OSTERA (1), viaje, vuelta.  
 OSTERA (2), ordea, aldiz, berriz.  
 OSTIKOLARIEN, ostikolariak.  
 OTORUNTZ, comida, repas.  
 OZPINDU, avinagrado.  
 OZTA, doi, justu.

PARTEZ, ordez.  
 PERILOS, peligroso.  
 PIKOR, bolita, boulette.  
 PISU, astun.  
 POPULU, jende.  
 SORO, solo.  
 SUHAR, ardoroso, ferviente.  
 SUNTSITZE, hondatze, destruír.  
 SUSTRAI, erro.

TANKERA, estilo.  
 TENTEL, zozo, tonto, bobo.  
 TREBATU, familiarizado.  
 TXOSTEN, informe escrito, generalmente breve.  
 TXUNDITU, estupefacto.

UDAL, ayuntamiento, municipio.  
 UDALETXE, herriko etxe, casa consistorial.  
 URDAZUBI, Urdax.  
 URDURI, artaga, inquieto, preocupado.  
 URRATS, pauso. (PAUSU, descanso, reposo).  
 URRATS URRATS, paso a paso, lentamente.  
 UTIKAN, a paseo, al traste, fi donc!  
 UZKUR, someter, sujetar.

ZAHAR, envejecer. (ZAHARTU, envejecido).  
 ZEREN (ETA), ze, pues.  
 ZINEZ, benetan.  
 ZIRRIKITU, hendidura, grieta, fente.  
 ZIUNTAN, ziuntaz, a toda prisa.  
 ZUZENBIDE, derecho. (HELBIDE, dirección, adresse).

## ADITZ INFINITIBOA

### Axularrengan

Etsaitu gabe eta gaitzera etorri gabe, onez\* onetara (amorangeanik\*) apartatzea ere gaitz izanen da eta perilos.\* Zeren\* lehen trebatuak\* izan, eroriak\* izan: lehen bezala elkarrekin egoiten, ibiltzen, mintzatzen: okasinoak ere lehen bezala edo maizago\* presentatzen eta gertatzen: gogoia urri, aldatzen errax; eta emazteak\* ere, behin gertatuz gero, ez falta ekidin.\* Ba da egiteko,\* ba da zertan pentsa. Ba dirudi, hobe litzatekeela gaitzerarik\* eta haserreturik partitza eta elkar uztea (245: 482-2).

# Nuklear zentralak hain arriskutsuak ote?

## AITZIN SOLASA

Gai polemiko honetan —nuklear zentraleri buruzkoan, halagia— askotan erabili ohi izan dira jendaurrean izen arrotzak, baina behar bezain zehazki argitu barik,\* nire ustez, zientzizigizon horiek zer dioten. Bestalde, hauzi korapilotsu honetan, euskaldunoi, hau da, euskaraz irakurtzen dugunoi, alde bateko eritziak bakarrik heldu zaizkigula iruditzen zait, eta bestekoak, alde\* edo moldez, estali. Euskaldun guztiak eritzi batekoak ote? Mirari handia litzateke, benetan, gurea bezalako herri pluralista batean.

Beste gauza bat ere ez dut ulertzen. Honelako arazo batean, non dira ekonomi azterketa serioak, hauzi hau, funtsean, ekonomikoa besterik ez baita? Uste dutea\* zinez\* gure hizlari eta idazle trebeek, horrelako diru pilo ikaragarria eralgi\* behar denean, gure kapitalistak bat batean tentelak\* bihurtu direla, berena eta besterena hain gauza perilosean ipintzeko? Bai zera, dirua berez hain ikarria izanik! Eta pentsa dezagun, gure kapitalistek beren zerbitzuan ba dituztela teknikoak —guti edo asko ikasiak— mila bider gehiago kontrakoek baino. Zeren,\* istripurik\* nahiz kutsadurarik\* gertatzen bada, zentralak gelditu egin behar baitute, eta orduan agur etekinak,\* eta, hala ere, geldiune horregatik bost axola\* zaion Amerikako "Export Import Bank" diruetxeak berdin berdin eskatuko baitu hila-beteroko korritua.\*

Aitzin\* solas hau luze samar badoa ere, jar gaitzen gogotan,\* gure Euskal Herri honek duen eretiaz,\* behingoan\* bere zentralak bertan kokatzeko\* eta elektrik indar gehiena Dueroitik edo Aragoatik ekarri beharra ez edukitzeko, arazo honek dituen maila guztietako ondoren larriekin. Eta ekonomiaz nahiz kutsaduraz apur bat kezkatzen direnek ezin dezakete esan, ikatzeko nahiz petrolioeko zentralak berdin berdin ipin daitezkeela; zeren ondotxo baitakite, Asturiasko ikatzak eta arabiarren petrolioak, garestiak izateaz gainera, noraino kutsa lezaketan eguratsa\* eta gaur egun ere zenbat kutsatzen duten Santurtzeko eta Pasaiko bi zentralen bitartez. Bero kutsadura, berriz, berdintsua dela thermal zentral guztietan, gauza ondo jakina da.

Are\* gutiago esan dezakete, fusio nahiz haize zentralak eta itsaso nahiz eguzkitiko energia erabiltzen dutenek, gaurkoz behinik behin, ezer praktikorik eskaintzen dutenik. Eta harritzekoa dena: nuklear zentralen nazionalizazioa —gure gaurko egoeran behintzat— eskatzen dutenak, konturatu barik agian,\* inoren jokoa egitera hel daitezke. Begiratu bat eman, jaunok, zenbat inbertitu duten INIkoek gure artean. Hor duzue zer gertatu den oraintsu, Bilbon muntatzeko zen gasifikazio lantegi hartaz. Eta ez pentsa, gerokoan hobeto izanen denik, berak ere sozialistak ei\* dira eta! Hori gerta baledi, Euskal Herriak besteren morroin izan beharko luke sekula sekulorunetan.

Sasoina ba zen, eta jarraian doazkizue Rasmussen zientzizigonaren konklusioak, agorrilaren\* 20ko "Atomic Forum" aldizkaritik itzuliak, ea labetik hain ateraberrria den opilak la-saitzen gaituen xertxobait artegatasun\* honetatik. Dena dela, jende urduiak\* ba du hemen beste iturri bat, bere jakin egarria asetzeko, nahiz eta, segur aski,\* galdera berriak sortuko diren erantzunak bezainbat.

## RASMUSSENEK DIOENA

"Populuaren\* arriskuak, nuklear zentralerako istripuetatik etor daitezkeenak, oso txikiak dira". Hauxe dio, agorrilaren 20an agertu eta *US Atomic Energy Commission* delakoak finantziatu duen *Reactor Safety Study. Assessment of Accident Risks in US Commercial Nuclear Power Plants* deitu\* txostenak.\* *Massachusetts Institute of Technology* ikertokiko\* Norman C. Rasmussen profesoreak, hiru milioi dolar kostatu den azterketa bat bururatu\* berria du. Azterketa honen helburua, "alde batetik, nuklear zentralerako arriskuen balorazio erreala egitea zen, eta, bestetik, gure gaurko gizarteak eta gizabanakoak jasaten\* dituzten ez-nuklear arriskuekin parez pare konparatzea".

"Erreaktore baten ingurune osoan bizi den pertsona batek", dio txostenak, "urte batez eta istripu batez hiltzeko duen probabilitatea, bat da 300 milioitan; zauritzeko, berriz, bat 150 milioitan". Zifra hauen ondoan, bestelako zenbait kasutan sortzen diren heriotzeak aipatzen ditu txostenak: zirkulazioan, bat 4.000tan; erortzean, bat 10.000tan; igerian, bat 30.000tan; tximist ekaitzetan, bat bi milioitan.

Estudio horren arabera,\* *core melt* edo muintzatearen\* probabilitatea 17.000tatik bat da, erreaktore bakoitzeko\* urte osoan zehar. Beraz, "1980. urtean USA —aurrez ikusten de-

nez— 100 erreaktore alha\* izanen direlarik, mende bat eta laurdenean gerta liteke, batez beste, holako istripu bat". Bestalde, "garrantzizkoa da ohareraztea", gaineratzen du txostenak, "muintzate bati ez zaiola derrigorrez\* jarraikitzen, jendartean kalte astunak sor lezakeen ondorioz". Ikertzaileen honen aurkikunde nagusienetako bat hau da: muintzateetan, hamarretarik batek bakarrik sor lezakeela osasunarentzako ondorio nigargarririk, eta zoritxar hau, batez beste, hamazazpi mendetan behin bakarrik gerta litekeela.

Hala ere, horrelako istripuren bat gerta baledi, hauk izanen lirateke ondorio larrienak: hiltzeak, bat baino gutiago; zauritzeak, bat baino gutiago; ondoko heriotzeak, bat baino gutiago; thyroideko nuduluak, lau edo; akats genetikokoak, bat baino gutiago. Kalkuluek erakusten dutenez, "hamar heriotze edo gehiago sor litzaketan istripuen probabilitatea, urte eta zentral bakoitzeko, 250.000tan bat da guti gorabehera; 100 edo gehiago hiltzeko probabilitatea, milioi batean bat estimatzen da; 1.000 edo gehiago hiltzeko, bat 100 milioitan. Kalkulatu den kopururik\* handiena 2.300 heriotze izan zen, eta hauen probabilitatea bat 1.000 milioitan".

"Antzekoak diren 100 zentral talde bat hartzen badugu, hamar heriotze edo gehiago sor litzakeen istripu baten probabilitatea, urte bakoitzeko bat da 2.500tan, edo, batez beste, holako istripu bat 25 mendetan. Mila heriotze edo gehiago sor litzaketan istripuen probabilitatea, bat da milioi batean, edo holako istripu bat behin milioi urtetan. Interesgarria da jakitea, beraxe dela, hain zuzen, USAko hiri bat jotzeko eta bertan 1.000 heriotze obratzeko, meteoro batek duen probabilitatea".

*Reactor Safety Study (WASH-1400)* izeneko txosten hau, urriaren 7tik aurrerantz salgai jarri du Amerikako *National Technical Information Service* delakoak. Prezioa 7,50 dolar. Eranskinen prezioa 174,50 dolar.

## EUSKALDUN GUZTION LANA

Rasmussenek dioena ez da, inolaz ere, "magister dixit eta kito" horietako bat, hori ez baita posible gaurko munduan. Aitzitik,\* nire asmo bakarra informazio zatiño bat eskaintzea izan da, horrelako gauzarik irakurtzeko aukera erosorik\* ez duten herrikide batzuei. Bai eta gure ANAITASUNA hau oreka\* dinamiko batetara erakartzea ere, zeren, eztabaidak mesedegarriak eta guztion artean osatuak izan daitezten, baiak eta ezak, biak onhartu behar baitira alzo\* berean, honelako gai konplexuez dihardugunean. Izan ere, itxuragabeko luxua litzateke, euskal komunikabideak hain eskasak izanik, holako aldizkari batek alde bateranzko bidea bakarrik har dezan, Bilboko "El Correo Español" eta "La Gaceta del Norte" egunkariak egiten duten bezala. Ezin ahantz dezakegu, bestalde, euskal inginadore, peritu eta diseinatzaile\* askotok saiatzen dihardutela teknika berriak bereganatzen, batez ere Bizkaian. Nork uka dezake, gure etorkizunari buruz honelako teknika berrien menperatzeari datzekion\* garrantzia?

Azkenik, nahiz eta beragaz gauza frankotan ez natorren bat, benetako agur bero bat bidali gura nioke J. R. Etxebarria adiskideari, bera izan baita nuklear arazoetan gure "pioneer" tre-bea, gai hau euskaraz lehenik erabili duena, herriaren aurrean bere eritziak zintzoki agertuz. Nola oraino gauza asko ta asko erabakitzeke\* baitaude eta argitzeko, ez dut batere durarik egiten, aurrerantzean ere berdin jokatu duela, herriguntzan lan egiten eta euskarari arlo berri honetan baitezpadako\* urratsak eman erazten.

Eta, azken finean, desira dezagun, egiten (edo ez egiten) dena guztion onerako izan dadila. Hala biz!\*

P. S. Lantxo hau amaiturik nedukala, irailaren\* 25ean Amerikatik dator albistea: hango AECk 60 egunen barru 21 erreaktore geldierazteko agindu duela. Erreaktore hauk\* guztiok, BWR (Boiling Water Reactor) edo ur irakinez hozten diren erreaktorekoak dira. Holako hiru erreaktoretan, zirrikitu\* batzuk aurkitu dituzte hodietan,\* zeintzuetarik ur erreaktiboa irten baita, baina inori kalte egin barik, horretarako dauden biltokietara eramana izan da eta. Hala ere, teknikariak zirrikitu guztiak ikertu eta beharbada konpondu egin beharko dituzte. Ezin uka daiteke, zorigaitz honek, ekonomia aldetik, kolpe ederra emanen diela Elektro Elkargoei,\* baina ez denei, zeren erreaktore gehienak PWR (Pressure Water Reactor) edo ur konpresatuz hozten diren erreaktorekoak baitira, hau da, Lemonizko erreaktorearen antzekoak. Makurra, beraz, mekanikoa izan da, ez nuklearra.

Patxi LATXIONDO